...eta Kitto!
2018-VII-20 1067 zkia.




# Kamera itzaltzeko unearen aurrean




Etxeko aseguruak estimatzen duguna babesten du. Altzariak, elektrodomestikoak, arropa, balio handiko gauzak... Sartu eta azalduko dizugu!

ETXE ASEGURUA

EUKI ASEGURUAK

Euki-n **zure etxea**ren neurriko babes onena eskaintzen dizugu

Informazio gehiago: **eukiseguros.com**

Etorkizuna da

**Etorkizuna da** gure seme-alabena
**Etorkizuna da** jasangarria
**Etorkizuna da** hezkuntza
**Etorkizuna da** emakumezkoena
**Etorkizuna da** geurea
**Etorkizuna da** berrikuntza
**Etorkizuna da** kohesio soziala
**Etorkizuna da** euskara

**Gipuzkoaren etorkizuna da guztion artean eraikitzen duguna.**

**Parte hartu**
**gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:** Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:** erredakzioa@etakitto.eus komunikabideak@etakitto.eus publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Maialen Belaustegi eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:** Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

Esku artean duzuen alea ikasturteko azkena da. Hurrengokoa Arrateak aurretik, irailaren 6an, eguenean, kaleratuko dugu.

*Ordura arte, ondo izan.*

## – Patronalaren erasoei aurre! –

Rothenberger multinazionaleko langileek Enpresa Hitzarmena negoziatzeko eta oinarrizko gaiei (lan erreformaren kontrako blindajea, soldaten igoera, urteko jardunaldiaren murrizketa, errelebo-kontratuak…) konponbidea emateko asmoz iazko urte amaieran egin zuten greba aurreko egunetan, WhatsApp bidez jakinarazi zen Mikel Etayo zuzendaritzako kidea behin-behineko langileei, enpresan jarraitu nahi bazuten, greba ez egiteko "gonbidapena" egiten ari zela. Bere izena denon ahotan zebilela jakin zuenean, Eibarko Ertzaintzan salaketa ipini zuen, mehatxatuta sentitzen zela eta bere alaben segurtasunarengatik arduratuta zegoela esanez. Baina mehatxu bakarra enpresako zuzendaritzak bere bitartez behin-behineko langileei egiten ari zena da.

Ertzaintzak ezin izan zuenez jakin (ezta jakin nahi ere) WhatsApp horren egilea zein zen, LAB-eko militante baten kontrako salaketa egin zuen. Sindikatuko kide horri "mehatxuak egitea" egotzi diote eta urriaren 2an Eibarren epaiketa izango da.

Rothenbergerren lan-gatazka amaituta, gure lankidearen kontrako salaketekin aurrera egiteko arrazoia enpresaren gehiegikeriak salatu dezaketen ahotsak ixilaraztea dela uste dugu. Mehatxuak egin dituen bakarra Rothenberger izan da eta bete ere bete dira, greba egin zuten hainbat langile enpresatik "irten" baitira. Greba egin ez zuten langile guztiek, aldiz, lanean jarraitzen dute. Zein da, beraz, mehatxuak egin eta betetzen dituena? Azala behar da gero!

Gauzak horrela, LABeko lankideari gure babes osoa azaldu nahi diogu, zuzendaritzako kide horrek izan duen jarrera salatzeaz gain. Horrelakoak salatzen dituztenen kontrako mehatxurik ez dugu onartuko. Argi diogu: aipatutako pertsonaia horren bidez Rothenbergerreko zuzendaritzak egiten duen jazarpen sindikala irmoki gaitzesten dugu. Epaitegietako prozesuarekin aurrera egitea erabakiz gero, guk publikoki salatzen jarraituko dugu. Horregatik, aipatutako salaketa berehala bertan behera lagatzea exijitzen dugu.

LAB sindikatua

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MARI**.- Emakumeak gutxietsi edo iraintzen dituzten adjetiboei indarra emateko erabiltzen den aurrizkia. *"Mari-sorgin, Mari-zikin, Mari-harro, Mari-guzurti"*.

**MARI-MUTIL**.- Gaztelerazko ***'marimacho'*** edo ***'marichico'***. *"Ume-umetatik izan da hori mari-mutilla"*.

**MARI-PIPARMIN**.- Jenio txarreko andrea. "Mari-Piparmiñek (izena ondo ipiñi zetsen piparmin hutsa zalako) hara nun deittu zetsan gure Pernandori juezarengana".

## astean esanak

"Emakumeok baserriari ondorengoak eman dizkiogu, eta baita baserriari beste ikuspuntu bat ere. Zenbat jende ikusten duzu zuk salmenta zuzena egiten? Ia denak dira emakumeak. Baserriak aurrera jarraitzeko plazatan nola egon behar dugun... emakumeak izan du beti ikuspuntu hori. Guk egiten dugun produktuari nola emango diogu irtenbidea? Salmenta zuzena, jendearekin harremanean. Gizonak gehiago jo du beste puntu batetik: makineria erosi, beste sega-makina bat, beste ez dakit zer... Emakumeak, berriz, oso garbi ikusi du beti nondik datorren ezkurra, eta baita non dagoen ere"

(MARIA JESUS INTXAUSTI, BASERRITARRA)

"Osakidetzako azterketen arduradunak dira interes handiena dutenak eta eurek hautatzen dute nori eman galderak hautaproba baino lehen. Azterketa eguna baino lehen eskura ematen dizkiete boligrafoz idatzita galderak, leku eta ordu zehatz batean geldituta. Gure lankideek itsuarena egin dute, isilik daude, beldur handia dagoelako, lanetik kanporatua izatearen beldurra. Administrazio publikoaren aurka borroka egitea zaila dela ikusi dugu, harresi bat da. Eta Osakidetzak ez du ezer argitzeko gogorik; Darponena antzerki hutsa da. Nik lanean hasi eta gutxira jakin nuen iruzurra egiten zela; horregatik, ez dut sinesten bizitza guztia lanean daramanak ezer ere ez jakitea"

(MANUEL MARTINEZ, OSAKIDETZAKO PROFESIONALA)

"Gaur egun zaila da kateen albistegiak ezberdintzea: gehienek gai eta joera bertsua jarraitzen dute. Horretatik irteteko La2 kateko albistegia izan daiteke aukera bat. Irudietan baino gehiago sakontzen dute testuan: albistearen ibilbide historikoa berreskuratuz, gertaera bera zalantzan jarriz eta ikuslearen gogoeta bultzatuz. Sarri, ironia puntu bat erabilita. Kazetarien erdia baino gehiago dira emakumezkoak eta, oro har, protagonismo txikia ematen zaie kazetariei. Ez dago kirol tarterik (emakumezko bat omentzeko ez bada), ezta eguraldiaren iragarpenik ere. Zatiketa, kezka eta desadostasuna bultzatzen duten elementuak, aldiz, ugariak dira. Besteekiko oso ezberdina"

(MIREN MANIAS, KRITIKARIA)

# Udako merkealdixak kalera etara dittue aurten be

**Eguazten goizian zabaldu eben Eibarko Udako Merkealdixen Azokia, Toribio Etxebarria kalian.** Eibar Merkataritza Gune Irekiak, Eibarko Udalaren laguntzarekin, antolatutako azokia gaur illuntzera arte, 20:00ak arte egongo da zabalik. Azokiak hamaikagarren edizińua betetzen daben honetan 32 establezimenduk dihardue parte hartzen. Gehixenak euren produktu eta eskintzak kalera etara dittue, baińa beste batzuk dendan bertan egin dittue merkealdi berezixak.





### "Euskeraz Primeran!" udako merkealdixen azokan

Aurten be ...eta kitto! Euskara Elkartea azokan parte hartzen egon da, "Euskeraz Primeran!" kanpaińarekin, mahaira gerturatu jakuen jendia denda eta tabernetan euskeria gehixago erabiltzera animatzen. Kanpaińako arduradunak azokan ipińi daben postura juan diranak euskeria erabiltzeko konpromisua hartu dabe, batzuk haundixagua eta beste batzuk txikixagua, bakotxaren euskera maillaren arabera. Trukian, erosketa zerrendia egitteko balixo daben imandun bloka jaso dabe. Gaińera, parte hartu daben guztien artian zozketia egin dabe gaur eguardixan eta sarixa Eibar Merkataritza Gune Irekiak emongo daben 100 euroko erosketa-txartela da.

# UNESCOren bi ebaluatzaillek Euskal Kostaldeko Geoparkera bisita egin dabe

**UNESCOren Munduko Geoparkien Sareko bi ebaluatzaillek hiru egun emon dittue** Euskal Kostaldeko Geoparkean bisita egitten. Mike Sweeney, Irlandako Copper Coast Geoparkeko zuzendarixak eta Marekazu Ohno, Japoniako Unzen Volcano Geoparkeko zuzendariordiak, Geoparkiaren kudeaketia eta aurrerapausuak aztertzeko asmuarekin egin dabe bisita. Izan be, eurak izango dabe ikusi dabenaren inguruko balorazińua eta ebaluaketa egitteko arduria eta, aditu bixak idatziko daben txostenaren arabera, erabagiko dabe Euskal Kostaldeko Geoparkeak UNESCOren Munduko Geoparke izendapenari beste lau urtian eutsiko detsan ala ez. Bisitak *"sentsazińo onak"* laga detse, baińa oin itxoitia tokatzen da, azterketaren emaitza ez dalako jakingo 2019ko martxora arte.





# Harainegun banatu zittuen 28. Toribio Etxebarria Sarixak

**Eguazten goizian banatu zittuen 28. Toribio Etxebarria Sariak,** Teknikerrek hartu eban ekitaldixan. Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoak antolatutako ideia eta proiektu ekintzaillien lehiaketia arlo honetan Euskadi maillan egitten diranen artian garrantzitsuena da eta irabazliak, 10.500 euro eskuratziaz gain, aholkularitza eta prestakuntzara bideratutako beste zerbitzu batzuk be jasotzen dittu. Edizińo honetako bederatzi finalisten artian, hónek saritu dittue: Enpresa Asmoak Sarixa "Spermselect" izenekuak jaso dau; Enpresa Berria Sarixa, barriz, "Cyber Surgery" izenekuarendako izan da; Nazioartekotza Babesa Sarixa, "Kookite" enpresakuak eruan dabe; eta, horrekin batera, eibartarreri egitten jakuen Iñaki Goenaga Aitorpena aurten 25 urte bete dittuan Teknimap enpresakuendako eta 50. urteurrena bete daben Eibarko Unibersidade Laboralarendako izan dira. Zorionak daneri!






# Udako ekaitzak tartian, ederto ospatu zittuen jaixak San Kristobalen

Aurreko asteburuan izan ziran San Kristobal auzoko jaixak eta, horretarako jai batzordiak antolatu zittuen jarduerak barixaku arratsaldian hasi zittuen, Udal ordezkarixak eta auzokuak bota eben txupinazuarekin. Jarraixan, jaixak ez eban etenik izan asteburu osuan: Orkresta elektrotxarangakuen kalejira, umiendako jolas eta txapelketak, triki-poteuak, mariatxiak... eta, jakiña, jaixeri nortasun berezixa emoten detsen kontzertuak! Barixakuan Sonic Toys eta Band Jovi taldekuak jardun eben eta zapatuan, barriz, auzuan aurretik be ezagutzen daben Extraño Veneno taldiaren atzetik aurtengo "izarrak" ziran Mocedades taldiari kantuan hastia tokatzen jakonian, demaseko ekaitza hasi zan. Halanda be, Mocedades taldekuak eta eurak entzutera juandakuak ez ziran kikildu eta, tximista eta trumoi artian, ederto ibilli ziran taldiaren kantu ezagunak abesten. Eta domekan, jaixak agurtzeko traka bota baiño lehen, betiko moduan rifaren zozketia egin eben. Hamen dakazuez saritutako zenbakixak: lehelengo irabazlia 1184 eta bigarrena, barriz, 1171.

## autuan

### 1953-AN JAIXOTAKUAK

**Aurten 65 urte bete edo beteko dittuela ospatzeko, urriaren 6xan alkartuko dira 1953. urtian jaixotakuak, alkarrekin bazkaltzeko. Juan nahi dabenak 85 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, ES 88 2095 5035 0091 1802 0414 kontu korrontian, izen-abizenak azalduta (dirua urriaren 3rako sartu biharko da).**

### URKI TALDIAREN 40. URTEURREN BAZKARIXA

**Club Deportivo Urkik 40 urte bete dittuala ospatzeko, nahi daben guztiendako bazkarixa antolatu dabe urriaren 27rako, Ipur sagardotegixan. Bazkarira juan nahi dabenak 40 euro sartu biharko dittu Kutxabanken, ES 23 2095 5109 0091 1538 9087 kontu korrontian, dirua sartzerakuan bere izen-abizenak emonda.**




MANUEL PEREZ MERINO
"MANOLO"

Mendiko lagunek ez zaitugu sekula ahaztuko





2018ko uztailaren 16an hil zen, 75 urterekin

**TUTULUMENDI**




**IDURRE IRIONDO**

## Famelixa-aisialdixaren inguruko proiektuak irabazi dau On Ekin

**Aurreko astian egin zan On Ekin enpresa ideia eta proiektu lehiaketaren 6. edizinua Ekingune,** Ekintzaileen arteko lankidetza eta sustapenerako alkartiaren eskutik. Pertsona zein enpresen sormena saritzeko asmuarekin sortu eben lehiaketiak aurten Eibarko Udalaren, La Caixa Fundazioaren eta Mariella Saitz, Eibarren Axa aseguruak dakan agente esklusibuaren babesa izan dau. Lehiaketara bialdu dittuen proiektuetatik finalista geratu ziran bostak Kerizpe alkartian aurkeztu zittuen eta, ondoren, han bertan egin eben afarira juandako 40 bat lagunen artian, bozka bittartez aukeratu zittuen irabazliak. Lehen sarixa Oihana Lasuen eta Gorka Litagoren "Adarabar" izenekuak jaso eban. Aisialdirako lotutako proiektua da eta egilliak urte honen amaierarako Eibarren martxan ipintzeko asmua dake. Sari modura La Caixa Fundazioak emondako 2.000 euro eruan zittuen. Bigarren sarixa Mandira Studio-ko Marian Idiakezek eskuratu eban. Mandira Studio aurten zabaldu daben dekoraziño eta interiorismorako estudixua da, dekoraziño eta artearekin lotutako zerbitzuak emotera bideratutakua eta, bestiak beste, kontsumo jasangarrixaren zein birziklapenaren arlueri arreta berezixa eskintzen detse. 1.000 euroko sarixa jaso eban. Eta hirugarren sarixa Maite Aperribayk eskuratu eban, "Casco" etxian martxan daguan Helmet House proiektuarekin: hiru esperientzia ezberdiñetan oiñarritzen diran hiru negozio-linea (Erosketa, Osasuna eta Aisialdixa) biltzen dittuan enpresa proiektua da eta irabazliak 300 euro dirutan eta Ekinguneren kidien eskutik 200 euroko balixua daken zerbitzuak jasotzeko eskubidia bereganatu zittuan.




## 2018ko Gure Balioak Sarixetarako hamalau hautagai proposatu dittue

**Hamalau hautagai aurkeztu dittue aurten bederatzigarren edizinua beteko daben Gure Balioak Sarirako.** Proposamenak aurkezteko epia aurreko domekan amaittu zan eta jaso dittuen hamalau hautagaitzak aztertzeko eta baloratzeko arduria izango daben epaimahaixa iraillian bilduko da. Hartzen daben erabagixaren barri iraillaren amaieran edo urrian emongo dabela aurreratu dabe sarixen antolatzailliak. Sari-banaketa ekitaldixa urrian izango da eta aurten Mallabian egingo dabe. Aukeratzen daben saridunak Juan Luis Baroja Collet artistak sari honetarako bereziki sortutako eskulturia jasoko dau. 2010. urtiaz geroztik Debegesa eskualdeko garapen agentziak urtero antolatzen dau Gure Balioak Sarixa, *"Debabarrenian giza balioen sustapenian nabarmendu dan pertsona edo entidadien jarduna publikoki aitortzeko asmuarekin"*. Iaz, Felix Etxeberria elgoibartarrak jaso eban sarixa.



*Baroja Colletek sortutako eskulturia jasoko dau saridunak.*



## Sasipe alkartiak mende erdixa bete dabela ospatzen

**Bista Eder kalian daguan Sasipe alkarte gastronomikuak 50 urte beteko dittu** aurten eta, hori ospatzeko, aurreko zapatuan ekitaldi berezixa egin eben. Gaur egun bazkidiak diran guztieri, bazkide izandakuen senidieri eta normalian soziedadian egoten diran laguneri urteurrenaren harira SCRG Sasipe alkartiaren logotipuarekin egin daben intsignia bana oparitu zetsen. Untzagan talde argazkixa egin eta jarraixan, piskolabisarekin agurtu eben ekitaldixa.

## Ljadra moduan, Aljerian gogoz kontra beste batzuk be badaguazela salatu dabe



**Aurreko asteko aldizkarixan kaleratutako albistian emon genduan aditzera zelan** Eibarren bizi dan Ljadra Said Hannuha gaztia, ustez gogoz kontra ezkontzeko asmuarekin Aljerian, bere famelixakuen esku daguan. Hori salatzeko, oin dala egun batzuk lagunak konzentraziñua eta agerraldixa egin eben Untzagan, ointxe Tindufen, El Aaium izeneko kanpamenduan daguan neskiak esan detsena jendiari eta komunikabidieri azaltzeko. Ljadrak berak hala eskatuta eta aillegatzen jakon informaziño gitxixarekin arduratuta, lagun batek salaketia egin eban Eibarko Ertzaiñetxian ekaiñaren hasieran eta, jarraixan, Ertzaintzak kasuaren barri emon zetsan Espaiñiako Poliziari eta, gaur arte, zabalik segitzen dau auzixak.

Lagunak diñuenez, datorren hillian 20 urte beteko dittuan gaztia hamen hazittakua da eta, Aljeriara juan aurretik, Ipurua zelaiko instalaziñuetan egitten eban biharra. Ljadraren kasua *"oso larrixa"* dala begittandu arren, *"sahararren artian bere moduko beste batzuk be"* badaguazela salatu nahi dabe lagunak ez eze, holako egoeria bizi daben andreri laguntzeko asmua dakan "La libertad es su derecho" izeneko kolektibuak be. Gertatzen ari danaren inguruko salaketia egittiaz gain, agintarixendako eskaera batzuk be badittue: *"Espaiñiako biztanlien artian, Ljadra izan da Aljerian, Tindufen daguazen saharar kanpamenduetan gogoz kontra daguala salatu daben azkena, baiña bere moduan Espaiñiako nazionalidadia daken beste lau gehixago eta Espaiñian bizi diran beste 46 andra dagoz holan. Gobernuak ezin dau laga holakuak pasatzen segitzia eta irmotasunez jokatu bihar dau: Frente Polisarioko ordezkarixak bota eta andra horrek Espaiñiara bueltan ekarri bihar dittu. Ljadra, Maloma edo Koria bezala, bere gobernuak bizi daben sufrimendutik etaratzia espero dau. Bere kasuan, gaiñera, Espaiñiako nazionalidadia daken bere famelixako kidiak dira. Horreri nazionalidadia kendu bihar detsela pentsatzen dogu"*.

## 40. Amañako jaixeri agur esan zetsen

**Aurreko barixakuan auzoko jubilaueri emondako bazkarixak agurtu eban** Amañako jaixetarako aurten preparautako programia. Jaixetako asteburu betia, baiña, kalendarixuan San Fermiñetakuarekin batera tokau da oinguan. Uztaillaren 6xan bota eben txupinazua Roberto Lopez Etxeberria diseñadoriak, Maite Markuerkiaga jaixetako babesle nagusiñetakuak eta Alain Albizu, Athletic-eko kadetietako jokalarixak, alkatiarekin eta Josean Alberdi "Goma" jaixen antolatzailliarekin batera. Azken honek, gaiñera, auzokuen omenaldixa jaso eban txupinazua bota eta jarraixan, jaixak 40 urte bete dittuela eta: Kezkako dantzarixak ohorezko aurreskua eskindu zetsen eta, ondoren, Amañako ume batzuren eskutik "Amaña es la caña" taldiaren oroigarrixa, auzuan bizi diranen taldeargazkixa jaso eban "Gomak", beraren omenezko ekitaldixa soka-dantzarekin agurtu aurretik.



### Rifaren zozketia

Bestalde, Amañako jaixetarako dirua biltzeko asmoz saldu zittuen rifetan, uztaillaren 8xan izan zan zozketia: Parisera bi lagunendako biajia egun horretan ONCEren kupoian saritutako 57.988 zenbakixaren azken lau numeruekin (7988) bat egitten daben txartelaren jabiarendako izango da.

## Lambretta motorren hotsak bete zittuan kaliak zapatuan



*Maria Victoria Irigoienek emon zetsan hasieria motorren kalejirari.*

**Primerako asteburua pasau eben Lambretta Eibar XV. Konzentraziñuan** parte hartzera animau ziran motorzaliak. Eibarren daguazeneri kanpotik etorrittako beste batzuk batu jakozen eta, hórreri eskerrak, Lambretta etxiak egin zittuan motorren modelo diferentiak bertatik bertara ikusteko aukeria egon zan zapatuan, goizeko lehen orduan Untzagan eta, geruago, San Kristobal auzuan. Bixen bittartian egindako kalejiria berezixa izan zan, gaiñera. Izan be, 1953an Lambretta taillarra Eibarren zabaldu eban Florencio Irigoien goguan, omenaldi modura, haren alaba Maria Victoria Irigoienek emon zetsan hasieria motorren kalejiriari, bandera eta guzti. Hori ez zan izan aurten omendutako bakarra: zapatu arratsaldian, Trabakuara igo eta gero, Lambrettako bihargiña izan zan Enrike Mugarzari be omenaldixa egin zetsen eta.

# Udalekuak ez dira gazteentzako bakarrik

Udalekuekin gazteek aisialdirako aukera badaukate, jubilatuek zergatik ez?". Gogoeta horretatik abiatuta, ekainaren 27an, motxilak ilusioz eta esperientzia berriak bizitzeko gogoz bete eta Errixoako udaleku batera abiatu ziren Eibarko 16 jubilatu. Aukeratutako lekua Errioxako San Asension La Sallek daukan egoitza izan zen. Kopuruan berdinduta joan ziren: zortzi emakume (Maritere, Kontxi, Maripaz, Isabel, Lourdes, Josefina, Maite eta Berta) eta zortzi gizonezko (Felix, Mateo, Garmen, Josean, Jesus, Joseluis, Juanmari eta Javier), eta eurekin hiru begirale izan ziren (Aitor, Asier eta Joseba). Denontzako lehen esperientzia izan da, eta, beraz, zaila izango da egun horietan bizitako sentsazioak ahaztea. Proiektuari jarraipena eman behar zaiola uste dute antolatzaileek, ez daukate inolako zalantzarik.


Udalekuetako parte-hartzaileak Errioxako San Asensio herrian.

Untzagako Zentro Sozialaren ekimen hau Eibarko lau jubiletxetako bazkideei eskaini zitzaien, eta Untzagako zuzendaritzatik behin betiko proiektua kaleratu zen. Proposamena Joseba Garcia La Salleko udalekuen arduradunari aurkeztu eta ideia bikaina iruditu zitzaion, eta baita Udalari ere. *"Proba pilotoa izan da eta datozen urteei begira eskaintza irakunkorra sortzea da asmoa"*, adierazi digu Josebak. Adindu enpresako Eva Perez de Albeniz eta Elena Iraolagoitiaren laguntza izan dute, *"bigarren egunean memoria eta garunaren bi hemisferioak lantzeko jarduerak martxan ipini baitzituzten"*.

Ohiko udalekuetan bezala, aurkezpena eta konfiantza lantzeko jarduerak izan zituzten, eta HARA dinamika (barnetasun ariketa, erlajazioa, eta norberaren burua eta emozioak ezagutu) landu zuten Joseangel salletar anaiarekin. Horretaz gain, *"normalean umeekin egiten diren jolasak ere egin ziren, zuzenketa egokiekin, jakina: paraka, uztaia pasa..."*. Aurretik programatutako ekitaldiez gain, denbora librerako tartea ere izan zuten eta, batez ere, paseatzeko erabili zuten, *"hango tokia horretarako zoragarria baitzen"*. Irteeren artean, San Asension bertan dagoen La Salleko museoa bisitatu zuten, eta Santa Maria de la Estrella upeltegian bisita gidatua egin zuten hango enologoarekin.


Ekimenarekin jarraitzeko prest daude. Argazkian, paraka jolasaren une batean.

Talde txikia dela eman arren, horrelako proiektua aurrera eramateko tamaina oso egokia izan dela uste dute antolatzaileek, *"eurekin jarduteko erraza izan da"*. Lehendabiziko esperientzia hau oso baliogarria izan da hurrengo urteetara begira: *"Ikasitako ikasgaien artean argi dago deialdia lehenago egin behar dela, eta taldea ez dela askoz handiagoa izan behar, 30-40 pertsona askoz jota..."*. Esperientziak oso sentsazio ona utzi die eta argi daukate zein den jarraitu beharreko bidea, *"Eibarrek, beti bezala, pertsona nagusiendako jarduera berritzaile eta erakargarriak antolatzen jarraitu behar duela argi dago"*.

# El Salvadorreko patinatzailea

Erdialdeko Amerikako bigarren hiri handiena da San Salvador, El Salvadorreko hiriburua. Zalcoatitan bailaran dago kokatuta eta bi milioi biztanle inguru bizi dira San Salvador sumendiak eta San Jacinto muinoak inguratuta. Hor jaio zen Carlos Truko, sarritan patinen gainean edo argazki kamerarekin ikusi ahal izan dugun mutikoa. Hainbat urte daramatza gure artean eta pozik dago Eibarren neska-laguna eta bi txakurrekin.



*Patinen gainean gozatzen du batez ere Carlos Trukok.* **Ekhi Belar**

### Surfa egiteko aproposa

San Salvadorreko biztanleak *"nahiko pilatuta"* bizi direla dio Carlosek. *"Jende ona dago, jende txarra... denetatik dago. Nondik mugitu zaitezkeen jakin behar duzu"*. El Salvador munduko herrialderik arriskutsuen zerrendetan agertu izan bada ere, aurriritziak albo batera utzi eta herrialdea bisitatzeko gonbidapena egiten du Carlosek. *"San Salvadorreko katedrala eta Liburutegi Nazionala ederrak dira, eta El Salvadorrek toki zoragarriak ditu, hondartzak adibidez. Surfa egiteko oso toki aproposa da"*.

### Gerra Zibilarekin elkarbizitzen

1980. urtetik 1992. urtera Gerra Zibila egon zen El Salvadorren. 75.000 pertsona hil edo desagertu ziren eta gaur egun gatazka horren ondorioak somatzen dira herrialdean. *"Amaitu zenean bakea etorriko zela uste genuen, baina gerraostea are okerragoa izan zen"*. Carlosek urtebete besterik ez zeukan gerra hasi zenean eta ez du orduko oroitzapen beltzik. *"Ez nuen gogorra izan zenik sentitu, oso txikia nintzen. Bonbardaketak zirenean familiarekin geratzen nintzen etxean eta ez ziren egun tristeak izaten"*. Zorionez, Carlosen familiako inork ez zuen bizia galdu. *"Hiriburuan ez ginen gauza askotaz ohartzen eta burbuila batean bizi ginen. Nagusitzean konturatu naiz hortaz"*.

### Maitasunari jarraituz

El Salvadorrera Gobernuz Kanpoko Erakunde batekin lan egitera joandako neska elgoibartarra ezagutu zuen Carlosek eta berarekin etorri zen Elgoibarrera. *"Bisitan etorri eta gaur egunera arte geratu naiz Euskal Herrian"*. Bidaiatzea asko maite zuten gurasoak ditu Carlosek eta asko bidaiatu izan du, beraz, ez zitzaion asko kostatu maleta egitea. Gure artean egon den 12 urte hauetan, ordea, ez du kontrako bidea egin. *"Ohartu gabe urteak pasa dira eta ez naiz etxera itzuli"*.

### El Salvadorreko zaporea

Arrebaren bisita jaso du urte hauetan, baina gurasoak ez ditu ikusi. *"Iraganean asko bidaiatu ondoren amak klaustrofobia dauka orain eta ezin da hainbeste ordutan hegazkin batean sartu"*. Hala ere, bere burua El Salvadorren balego bezala sentitzeko modua aurkitu du Carlosek. *"Behin jatetxe salvadortar batera joan nintzen Bartzelonan eta ezin izan nuen ezer jan. Nire amaren jakiak etorri zitzaizkidan gogora eta ezin nion negarrari eutsi. Ordutik, El Salvadorreko janarien errezetak ikasten hasi eta noizean behin egiten ditut"*.

### Gurpilen gainean

Patinatzea maite du Carlosek eta gurpilen gainean mundua ezagutu du. *"Han bizi nintzenean Erdialdeko Amerikako hainbat herrialdetara joan nintzen patinatzera"*. Hemen ere hara eta hona dabil. Amerikako Estatu Batuetatik El Salvadorrera bidaia egin zuen behin eta patinak ekarri zituen handik. Bizitza ulertzeko modua da patinajea beretzat eta orain belauna minduta badu ere, patinak janzteko irrikitan dago.

## "Matar a tu chucho a tiempo"

***"Zerbait aurreikusi eta ezer gertatu aurretik jardun"***

Eibartar gehixenok opor giruan sartuta izango gara, batzuk honezkero disfrutatzen eta beste batzuk zelan aprobetxatu pentsatzen, hori dana lotuta ez badake. Urtetik urtera abuztuan herrixan gero eta jende gehixago geratzen dala esaten jaku, oporrak zatittuta hartzen dabezenak be asko dira-eta. Baiña, urrutira juan barik, herrixan geratzen diranak be ez dabe, ez, aspertzeko asti askorik izango, jaixak han eta hamen, bata bestiaren atzetik, prestatu dabezelako. Hamen dozuez hórretako batzuk. Ondo aprobetxau!!!

# Urrutira joan barik oporretan jairik jai






*Azittaiñen urtero errespetatzen dabe abuztuaren 15eko jaieguna.*

## Mutrikuko jaixak hillaren 21etik 25era arte

Bost egun hartuko dittue aurtengo kostaldeko herri horretako jaixak. Bixar **Malen bezpera** eguna da eta, 18:00etan hasiko dan zesta-punta partiduak hartuko dittuen jaialdixarekin batera, Salbea, larrain-dantza herrikoia, Botiltzarra gaztiekin, helduen danborradia eta Oihan Vegak eskinduko daben diskodantza izango dira. Domekan, **Malen egunian,** Musika Bandaren kontzertua izango da goizian eta gero sokamuturra 18:00etan, herri-kirolak, Sonidos de Mejico mariatxia eta su artifizialak 23:00etan. **Malentxiki egunian**, Gure Ametsa dantza-taldiaren erakustaldixarekin batera, umien danborradia eta erromerixia Drindots taldiarekin izango dira. Hillaren 24an **Kuadrilla Eguna** ospatuko dabe eta, eguerdiko futbito-zezenekin eta geroko sokamuturrarekin amaitzeko, Su Ta Gar-en kontzertua izango da gaueko 23:00etan. Eta amaitzeko, **Santixo egunian**, pintura-lehiaketia, okela- eta txakoli-dastaketia eta Anaiarte abesbatzaren kontzertua izango dira.




## Ermuko jaixak hillaren 27ra arte iraungo dabe

Aurretik be jaixekin lotutako hainbat ekitaldirekin gozatzeko aukeria izan dabe Ermuan, baiña play-back lehiaketa arrakastatsua **gaur bertan** hasiko da. Bestalde, ekitaldiz betetako hurrengo egunetako egitarauaren barruan honakuak aittatu geinkez: **bixar** borroka senegaldar erakustaldixa izango da, dantza-alardia eta baitta Rulo eta La Contrabandaren kontzertua be gabian. **Etzi, domekan,** musika eta dantza-jaialdixa izango da, Tailandia eta Siberiako taldiekin, eta gaberako magia erakustaldixa prestatu dabe. Astelehena **Umien Eguna** izango da eta, eurendako antolatutako gauzen artian, gabian izango dan Festan Blai nabarmendu leike. **Martitzenian**, 24an, txarangen desfile haundixa izango da eta, behin gabera gerturatzen, berbenia Diamante Show taldiarekin eta, ondoren, techno jaialdixa. **25a egun garrantzitsua** da jai hauen barruan: egun horri sokamuturrarekin hasiko da 08:00etan, herri-kirolak eta profesionalen arteko pilota partiduak be izango dira, ez da faltako 20:30xetan euskeriaren aldeko konpromisuaren brindisa eta, illuntze bidian, Golden Apple Quartet-ek bere aktuaziñua hasiko dau 22:30xetan eta jarraixan beste bi berbena izango dira herriko puntu desberdiñetan. **Eguenian,** hillaren 26xan, bigarren sokamuturrarekin batera, **nagusixendako egun** horretan omenaldixa egingo jakue, herri-bazkarixa be izango da, larrain-dantzarako tartia be bai eta, ondoren, "Mulier" dantza-ikuskizuna eta berbenia. Azken eguna, **27ko barixakua**, haundixa izango da, azken sokamuturra, paella-lehiaketa entzutetsua, erromerixia, su artifizialak eta Los Diablos-en kontzertua tarteko.

## Mendaron 25ian hasitta 29ra arte jai eta jai

Santana bezperan, hillaren 25ian, Salbea izango da goizian eta txupinazua, bestalde, arratsaldeko 19:30xetan bota-




ko dabe, Katasorgiñaren jaitsierarekin batera. Egun horretan izango dira helduen danborradia eta Egurra eta kitto eta Vendetta taldien kontzertu potentiak. Santana egunian prozesiñua, 16:00etan herri-kirolak (Gipuzkuako I. Maillako aizkolarixen txapelketia jokuan dala) eta Imperial Elegancia mariatxia izango dira, eguna Gozategiren kontzertuarekin amaitzeko, 23:00etatik aurrera. 27xan Haurren Eguna ospatuko dabe eta egun horretako programaziñuan umien danborradia eta Oxabirekin egingo dan dantzaldixa sartuko dira. 28xan Kuadrillen Eguna izango dabe, tartian paella-lehiaketia, goittibeherak eta play-back lehiaketiak eskinduko daben giruarekin. Eta jaixekin amaitzeko, 29xan, nagusixenak ospatuko dabe eguna batez be, Zahartzaroari omen egunarekin. Hor txu-txu trena, euskal-dantzak eta bazkarixa eta Lehianekin prestatuko daben dantzaldixa izango dira nagusi. Jaixok Katasorgiñaren igoerarekin amaittuko dira.

## Soraluzen be 25ian hasiko dira, 28xan amaitzeko

Udaletxetik botako dan kañoikadiarekin hasiko dira Soraluzeko jaixak **Santixo egunian.** Hori arratsaldeko 19:00etan izango da eta, udaletxeko kontzejupetik, Euskaraldirako Soraluzeko hamaikakua arduratuko da botatziaz. Halanda be, aurretik gaztien bazkarixa eta bertso-poteua izango dira. Gero helduen danborradiak urtengo dau eta izango da musikarekin datza egitteko aukeria be: Edelweis orkestiak joko dau Plaza Zaharrian eta Fan & Go taldiak erromerixia eskinduko dau Zubi Nagusixan. **Santana eguna** hasteko gaiteruak eta zezenak hasiko dira goiz-goizetik, bakaillau-lehiaketiak hartuko dau eguerdixa, alkartasun-bazkarixa izango da jarraixan eta, behin arratsaldian sartuta, zezenak barriro be, dantzarixen kalejiria eta larrain-dantza. Gabian Golden Apple Quartet Plaza Zaharrian batetik eta Pelax & Telmo Trenor, A Tuti Plen eta Bastardix taldiak emongo daben kontzertua bestetik, azken hori Zubi Nagusixan. **Hillaren 27xan**, barixakuan, puzgarrixak, Barredora txapelketia, Rockalean taldiaren kalejiria eta, eguna amaitzeko, Against You eta Liher taldien kontzertua izango dira. Azken eguna, zapatua, betia izango da: herriko pro-




duktuen azokia izango da goizian, Tio Teronen Semiak taldiaren dantza-ikuskizuna be egongo da eguardixan eta baitta herri-bazkarixa be Kalebarrenian. 20:00etan Arantza eta Pantxok kontzertua eskinduko dabe eta jarraixan Soraluze Open Air Gune Musik jaialdixa frontoian. Oihan Vega eta Egoitz Txurrukaren disko-festarekin batera (Plaza Barrixan), Barrabasa, Nafarroa 1512 eta Nomadak taldiekin kontzertua izango da Zubi Nagusixan, bixak 23:00etan hasitta.


*Debako jaixen hasieria.*

UZTAILLIAN.-
**22xan, Malenak:** Mutrikun eta Durangon
**25ian, Santixauak:** Ermuan, Soraluzen, Mendaron, Goimendin eta Etxebarrian
**26xan, Santanak:** Mendaron, Soraluzen eta Arrasaten
**31n, Saniñaziuak:** Azpeitian, Antzuolan, Lekeitixon, Elorrixon eta Garain
ABUZTUAN.-
**5ian, Kopraixak:** Itziarren
**6xan, San Salbadorrak:** Eibarko auzuan
**10ian, Sallobentiak:** Ermuko eta Elgoibarko auzuetan
**12xan:** Euskal Jaixa Zumaian
**15ian, Andramaixak:** Eibarko Azittaiñen, Elgetan, Soraluzen, Mallabixan, Ondarrun, Azkoitian eta Aretxabaletan
**16xan, Sanrokiak:** Deban, Elgoibarko auzuan eta Mallabixan
**20xan:** Kuadrilla Eguna Zumaian
**24an, Sanbartolomiak:** Elgoibarren
**31n, San Ramon Nonato:** Mallabixan
IRAILLIAN.-
**1ian, Sanantoliñak:** Lekeitixon
**14an, Kalbaixuak:** Mutrikuko auzuan

Hilabete amaieran argazki-kamera itzaliko du Anabel Mendezek. Mila erretratu eta mila ezkontza, hainbat eta hainbat pertsonentzat ahaztezinak izan diren momentuak harrapatu ditu bere objektiboarekin. Autodidakta eta sormen handikoa, bere lanbidea maite izan du azken 39 urteetan. Argazkigintzarekin asko gozatu du eta mila pasarte ditu gogoan. Orain beste aro bat hasiko da, bai Anabelen bizitzan, baita Eibarko argazkilaritzan ere.



## ANABEL MENDEZ
**(argazkilaria):**

# "Erretratoen argazkilaritza profesionala amaitu egin da"

***- Jubilatzear zaude, argazkilaritza profesionala lagako duzu eta, bide batez, argazki-dendako hainbat objektu saltzen zabiltza. Eurekin oroitzapen askok egiten dute alde?***

Saltzen dudan gauza bakoitzarekin nire lanaren zati batek alde egiten du. 39 urte egin ditut argazkilari moduan eta sentimendu kontrajarriak ditut. Batetik, pozik nago lan asko egin dudalako. Baina bestetik, pena handia ematen dit asko gozatu dudalako. Asko maite izan dudan lana izan da. Lan gogorra, asteburu askotan egin behar izan dudalako lan, baina sormenezko lana, eta hori asko gustatzen zait.

***- Urte hauetako zein argazki gordeko zenuke?***

Zaila da bat aukeratzea, momentu eta bizipen asko izan direlako. Milaka argazki atera ditut, enkargu bitartez egindako lanak. Autore-argazkiak izango balira, ziur aski izango nuke argazki kuttunen bat. Hala ere, estudio-saioetan dena ematen saiatu naiz, ume bakoitzari ahal izan dudan guztia atera diot eta bezeroen esker ona jaso dut. Horrek biziki pozten nau. Argazkietako protagonisten arima islatzen saiatu naiz. "Naizen moduan atera nauzu", esan izan didate. Hori da justu lortu nahi nuena eta hori lortzea da zailena. Jendeak negar egin du argazkiak jasotzean eta horrek emozio handia eman dit, eta baita aurrera jarraitzeko indarra ere.

***- Nolako argazkilaria izan zarela esango zenuke?***

Ez naiz oso argazkilari teknikoa izan, baina argia ikusteko pribilegioa izan dudala uste dut eta, berehala, pertsona ikusten nuen. Behartutako egoerak saihestu ditut eta egoera naturalak sortzeko gaitasuna izan dudala uste dut. Lan freskoak egiten saiatu naiz, abangoardiakoak.

***- Enkargu bitartez egin duzu lan, baina zein puntutaraino esku hartu ahal izan duzu argazkietan?***

Kontratua sinatzen genuen momentutik aurrera nire esku geratzen zen lan guztia. Nire gustura egindako lanak izan dira, bikoteak izan behar duen oroitzapena zein izan beharko litzatekeen pentsatuta beti ere. Ezkontzetan, adibidez, betiko lau argazki estatikoez gain giroa islatzen saiatu izan naiz. Argazki-dendan eta webgunean erakutsi ditudan argazki batzuk nahiko ausartak izan dira eta ezkongai batzuk esan izan didate horrelakorik ez zutela nahi. Gero, ordea, argazki-saioa hastean ezkongaiek ez zuten igartzen argazkiak ateratzen ari nintzenik eta, oso gustura egoten zirenez, poliki-poliki egoera aproposak sortzen ziren eurek nik eskatutako gauzak egiteko.

***- Zure argazkietan pertsonak izan dira protagonista. Paisaia edo objektuei argazkiak ateratzea baino zailagoa da?***

Niretzat errazagoa da. Zailagoa egiten zait argazkilaritza industriala egitea eta ez zait gustatzen gainera. Pertsonekin lan egitea dinamikoagoa da eta argazkilari teknikoa ez naizenez, hobeto egokitu naiz pertsonekin lan egitera beste lanak egitera baino. Erraietatik ateratzen zaidana islatzen saiatu naiz eta batzuetan teknika sakrifikatu dut momentu jakin batean asko esaten didan argazkia ateratzeko.

***- Lehen argazkia edo lehen enkargua gogoratzen duzu?***

Bai. Kasualitatez hasi nintzen argazkigintzan. Argazkilari batekin ezkondu nintzen, baina nik ez nekien argazkirik ateratzen eta idazkari moduan egiten nuen lan. Handik bi hilabetera argazkiak ateratzen nenbilen eta asko gustatu zitzaidan. Ikastaroak egin nituen, nire kabuz ikasi nuen,

kongresuetara joan nintzen eta horrela egin nuen aurrera. Lehenengo aldian ezkontza bateko tartaren argazkia atera behar nuen eta kamera aurretik prestatuta eraman nuen. Izututa negoen.

*- Ordutik aurrera izu hori desagertzen joan zen?*

Edozein ezkontza izan baino hiru egun lehenago tximeletak izaten nituen sabelean, beti. Berdin zion aurretik 500 ezkontzatan lan egin izana, beti jartzen nintzen urduri.

*- Izu edo tximeleta horiek sentitzea ona dela esango zenuke?*

Baietz uste dut, aktibo mantentzen zaituelako. Sukarrarekin, haurdun eta 11 egun zituen alabarekin joan izan naiz lanera.

*- Badakizu zenbat ezkontzatan egon zaren?*

Ez dakit ziur, baina urtean batez beste 40 ezkontza kubritu baditut, 1.500 ezkontza baino gehiagotan egon naizela esango nuke. 2010. urtean utzi nion ezkontzetan lan egiteari eta beste argazkilari batzuek esan didate asko jaitsi dela ezkontzetako lana.



*Bere argazki-estudioan hartu gintuen Anabel Mendezek.* **Veronica**

*- 39 urte hauetan asko aldatu dira modak, estiloak, gustuak eta argazkigintzako joerak?*

Bai, asko! Jaunartzeko argazkietan, adibidez, umea bere soineko edo trajearekin jantzita atera ohi zen eta kitto, baina nik beste buelta bat eman nahi izan nion. Bere afizioak, anai-arrebak eta bestelako gauzak islatzen hasi nintzen, zerbait gehiago eskaintzeko. Bestetik, argazkiak ezkontzaren aurretik ateratzen aitzindaria izan nintzela esango nuke.



**"Argazki mundua asko maite izan dut"**

*- Nola bizi izan zenuen argazkigintza analogikotik digitalerako jauzia?*

Negar asko egin nuen. Hasselblad kamerarekin ateratzen nituen argazkiak ezkontzetan. Ez zeukan ia pisurik, luparekin egiten nuen lan eta oso pozik nebilen. Baina aro digitala ailegatu zen eta gauza asko ikasi behar izan nituen, lan-prozesu guztia (argazkiak egitetik entregatzera) nire esku zegoelako. Argazkiak ateratzen ez nekiela pentsatu izan nuen! Argazkiak ateratzeko modua ere aldatu zen.

*- Zure argazkiek estilo edo marka jakin bat izan dutela esango zenuke?*

Bai, noski. Estudio-argazkietan, ohikoak diren argazki minimalistez gain, giro ezberdinak sortzen saiatu naiz beti. Dekorazio ezberdinak erabili izan ditut eta hutsetik hasita argazki osoak sortu ditut horrela. Hori da nire zigilua.

- Hilabete amaieran zure lanbideari agur esango diozu. Jende asko etorri da agurtzera?

Kartel bat jarri nuen eskaparatean urte hauetan nigan konfiantza jarri zutenei eskerrak emateko eta, irakurri eta gero, jendea agurtzera sartu da. Gainera, Eibartik kanpoko jende askori atera dizkiot argazkiak (nire bezeroen %70 hemendik kanpokoa zen, Elgoibar eta Durangokoa batez ere) eta agurtzeko deitu didate hainbatek.

*- Zure argazki-denda itzal handikoa da Eibarren. Badago oinordekorik herrian?*

Herrian ez da geratuko galeriarik duen argazkilaririk, beste modu batean egiten dute lan, online (sarean), eta ez dago argazkilarien lanak erakusten duen dendarik. Erretratoen argazkilaritza profesionala amaitu egin da.

## Andrea Garcia (marrazkilaria)

# "Jendearen **hitz politak** entzuteak demaseko **poza** ematen du"

**Egun hauetan aho zabalik irteten dira El Corte Ingleseko ekitaldi aretora joaten direnak. Andrea Garcia marrazkilariaren lanak aurkitzen dituzte bertan, arkatzarekin egindako erretrato errealistak. 19 urteko artista eibartarrak bizitza osoa darama marrazten eta bere artista sena musikaren bitartez ere garatzen du. Irailaren lehen egunera arte egongo da zabalik erakusketa 11:00etatik 21:00etara.**



*- Zenbat arkatz erabili dituzu erretratoak egiteko?*

Asko! Normalean bi edo hiru arkatz mota erabiltzen ditut, irudikatu nahi dudanaren arabera.

*- Nolako arkatz motak izaten dira?*

2B edo 3B, adibidez. Arkatz batzuk besteak baino leunagoak dira, beste batzuk bigunagoak.

*- Marrazkiak txuri-beltzean egiten dituzu edo koloretako arkatzak ere erabiltzen dituzu zure lanetan?*

Gehienak txuri-beltzean egiten ditut, baina erakusketan badago koloretako arkatzekin egindako marrazki bat.

*- Arrazoiren batengatik egiten dituzu marrazkiak txuri-beltzean edo beste barik?*

Beti gustatu zait txuri-beltzean egitea, baina beste barik, ez dago arrazoirik. Txikia nintzenean horrela hasi nintzen marrazten eta horrela jarraitu dut.

*- Erretratuak bakarrik marrazten dituzu?*

Jendearen erretratoak egiten ditut gehien bat. Erakusketan agertzen diren marrazki batzuk jendeak egindako enkarguak dira eta beste batzuk jendearentzako opariak.

*- Enkarguak jasotzen badituzu, zure lanek ibilbide luze eta ona egin duten seinale.*

Bizitza osoan marraztu dut, baina orain dela bi urte hasi nintzen enkarguak egiten. Gero, ahoz aho nire lanen berri eman zuen jendeak eta horrela zabaldu da sarea.

*- Norbaitek enkargu bat egin nahi badizu, zer egin dezake?*

Normalean zuzenean esaten didate, telefonoz edo lagunen bitartez. Publikoki ez dut telefonorik jarri nahi duenak enkarguak egiteko, konfiantza kontua da gehien bat. Egia esan ahoz ahokoa asko mugitu da eta enkargu asko egiten dizkidate astero. 10 ordu baino gehiago behar ditut lan bakoitza egiteko eta lan handia eramaten dut etxera.

*- Beti egin izan dituzu irudi errealistak?*

Errealismoa asko gustatzen zait, itzalekin lan egitea, baina denetatik egiten dut. Arte Ederretako karrera ikasten nabil eta gauza asko egiten ditut, baina erretratuak egiten eta errealismoa lortzen espezializatu naiz.



*- 19 urte dituzu eta Arte Ederrak ikasten zabiltza oraindik. Demaseko irudiak marrazten badituzu ere, bidea daukazu egiteko oraindik?*

Aurretik Batxilergo artistikoa egin nuen eta irakasleek esan zidaten urruti iritsiko nintzela artearen munduan, beraz, bide horretan jarraitu dut.

*- Beti eduki duzu argi artearen bidea jarraitu nahi zenuela?*

Beno, musikaren munduan ere banabil. Nire gitarra eta ahotsarekin kontzertuak eskaini ditut eta baditut hainbat gauza esku artean. Nahiko artista naizela esango nuke nire osotasunean.

*- Zure lehen erakusketa da?*

Aurretik Batxilergoko ikaskideekin egin nuen beste bat, baina hau da bakarka egiten dudan lehenengoa.

*- Nolako harrera izan du?*

Jendea oso pozik dago eta marrazkiak izugarriak direla esaten didate. Jendearen hitz politak entzuteak demaseko poza ematen du, marrazkiak egiten zabiltzan bitartean ez diozulako garrantzia handirik ematen egiten zabiltzan horri.

*- Marrazki berriak egiten zabiltza? Beste ildo bat jarraituz agian?*

Erretratoak egiten jarraitzen dut, baina etorkizunean koloreak gehiago sartzen hasiko naiz ziur aski.



# Euskal Herriko Gazte Orkestraren urteroko hitzordua Eibarren

**Aurreko zapatuan ailegatu ziren gurera eta, ohikoa denez,** Hezkuntza Esparruan hartu dute ostatu. 16 eta 26 urte bitarteko 80 musikari etorri dira EGOrekin (Euskal Herriko Gazte Orkestra), aurtengo errepertorio sinfonikoa landu eta udako lau kontzertuak prestatzeko. Datorren martitzenera arte izango dira Eibarren, Igor Stravinskiren "Suzko txoria" eta Sergei Rakhmaninoven "Pianorako eta orkestrarako 2. kontzertua" lantzen. Batzuentzat lehen urte bada ere, musika ikasle gehienek EGOko esperientzia errepikatzen dute. Hamaika egunetako egonaldian musika jotzen ematen dute denbora gehiena: 10:00etatik 13:30era goizez, eta 16:00etatik 20:00etara arratsaldez. Martitzenera arte atalka jo zituzten konposizioak, talde bakoitzak bere irakaslearekin, baina orain antzokian aritzen dira, guztiak batera, ikasleei gehien gustatzen zaien moduan. 21 urteko ibilbidea du orkestrak eta aurten zortzi irakasle aukeratu dituzte ikasleak asteotan trebatzeko. 16 eta 26 urte arteko gazte musikariek dute EGOn jotzeko aukera, baina 21 urtetik gorako gutxi daude orkestran, oso gaztetatik hasten baitira euren bidea egiten. Eibarren izango diren azken lau egunetan izango dituzte kontzertuak: bihar Hondarribian, etzi Gasteizko Principal antzokian, astelehenean Donostiako Kursaalean eta martitzenean Bilboko Euskaldunan.



*80 musika ikasle daude Hezkuntza Esparruan.*

# Musika elektronikoa gustuko dutenentzat ezinbesteko hitzordua

**Uda ailegatzearekin batera, zuzeneko musika emanaldiak ere ugaritzen hasten dira.** Azken urteotan, gainera, estilo guztietako jaialdiak geroz eta arrakasta handiagoa izaten ari dira. Musika elektronikoa gustatzen bazaizue, zorteko zaudete, etxetik oso gertu, Donostian, nazioarteko mailan oso ezagunak diren artistak elkarrekin ikusteko aukera izango duzue eta. Izan ere, 40 artista arituko dira abuztuaren 30etik irailaren 1era egingo den Donostiako Dantz festibal elektronikoan.

Dantz festibalak hainbat berritasun ekarriko ditu aurten: besteak beste, iaz baino egun bat gehiago iraungo du festibalak. Eta, horrez gain, barixaku eta zapatuko kontzertuak Gazteszenan egingo dituzte eta eguenekoak, berriz, Tabakaleran. Gainera, inoiz baino emakumezko gehiago igoko dira oholtzara. Hain zuzen ere, musikarien erdia emakumeak izango dira. Eta, iazko egitarauarekin alderatuz gero, nazioarteko artisten kopurua %50 hazi da. Barixakurako sarrerak 8 eurotan egongo dira eskuragarri txarteldegian bertan, jaialdia ospatzen den egunetan. Zapatuko sarrerek, berriz, 12 euroko prezioa izango dute. Jaialdiaren inguruko informazioa www.dantz.eu helbidean aurkituko duzue.




YOKASTA
Yokasta Nails Spa
manikura-aretoa
Ibarkurutze, 7
Tel. 603 344 258
MANIKURA
5 tik hasita
PEDIKURA
10 tik hasita
zure azazkalak

zure espresiobidea


PUBLI RESA
objeto publicitario
Armagin, 3-5 beheak
merchandising
serigrafia
lanerako erropa
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419

# osasun gida

## Dentistak

**arat** Hortz Klinika
943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk
*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*
UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17
Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik. Etorri eta egin irribarre berriz ere.
**bista eder**
clínica dental hortz klinika
Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es

**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
MAITANE G. IÑIGUEZ
Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustín, 4 behea ezk.
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
Errebal, 9 - 1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

hortz-klinika
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4.
Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk.
943-702896

10 urte zurekin Eibarren
25 prestazio doan zuretzako
**VITALDENT**
*Konpromisoa*
San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**
*Ainara Iriondo Ansola*
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
ERREHABILITAZIOA
- *Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala*
- *Min-Unitatea*
- *Inkontinentzia urinarioak*
- *Kirol medikuntza*
- *Ama izateko prestakuntza*

Muzategi 2 (EIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
**MEDIKUNTZA** ESTETIKOA
**KIRURGIA** ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea
943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**
970 Kolegiatu zbkia.
Indibaterapia
Kirol lesioak
Drenaje linfatikoa
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**
**DOKTOREA**
- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk.
943 20 28 57
94 444 95 34

## Logopedak

**AHOTS-LAN**
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA
Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com
Diagnostikoa eta tratamendua
Degluzio atipikoa — Arreta arazoak
Disfonia — Berba arazoak
Ikaste-arazoak — Dislexia
LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
*Ana Artamendi*
- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba** logopedia
AIDA CORTA ANTÓN
SAN AGUSTIN, 2-4 (B lokala)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es
Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

## Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada
**JOSE ALBERDI**
www.oftalberdi.com
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

**Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika
· Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)
R.P.S. 234/13
Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050
ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**
T.ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com
Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)
Tel. 675 70 68 07
- Master Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1° 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

*Lorena Izaguirre Garcia*
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA
Errebal, 15 - 1. ezk.................EIBAR
Zuberoa, 4.......................ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
*Oscar Mondragon Lili*
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es
**Itziar Moreno**
PSIKOLOGOA
KOLEG. ZKIA. 1947
GIZENTASUNA
ANTSIETATEA
AUTOESTIMA
ARAZOAK
☎ 943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.
ORBEAKO DORREETAN
centro médico eibar

## Psikoterapia

RPS: 32/17
FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
**Medikuntza Psikiatrikoa**
Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04
Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

# Oiloa nolakoa, arrautza holakoa



jaione yeregi
TEKNIKARIA DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN

**Zenbat aldiz gogoratzen ditut ume nintzela, larunbatero, aitona eta amonaren baserrira joaten ginenekoak.** Sasoiak azkar aldatzen doazela ziurtatzen didate orduko oroitzapenek. Aitona eta amona adinean aurrera zihoazela eta eurekin harremanetan jartzeko telefonoa jarri nahi izan zieten gurasoek. Eginahalak egin arren, ez zen lortu baserrian telefonorik jartzerik. Gaur egun denok poltsikoan mugikor batekin gabiltzala jakingo balute…Garai berean, baserrian arnasten zen lasaitasun eta askatasunak ez zeukan zerikusirik gaur egungokoarekin. Goizean goiz: oilarra eta txoriak kantari, behi, ardi, asto… larrean eta oiloak kanpokaldean mokoka. Zenbat aldiz bidali ote ninduen amonak ortura bertan sartutako oiloak uxatzera. Oiloak aztarka dabiltza eta bestela akabo landatutakoak! Oiloak libre ibiltzen zirela? galdetuko dute gaur egun ume eta hain ume ez diren hainbatek. Bai, eta arrautzak jartzeko sasoian, txintxo txintxo oilategi barrura sartu eta bakoitzak bere txokoan jartzen zuen arrautza. Ez gaur egun moduan, gehienak nabe edo kaiolan sartuta izaten dituzte gastu txikienarekin etekinik handiena ateratzeko asmoz. Zorionez, bada arrautzaren eta oiloen bizi kalitateari garrantzia ematen dionik eta garai hartako arrautzak bezalakoak ekoizten duenik. Arrautzaren kalitatea zein den jakitea oso erraza da. Inprimatuta daukaten kodeari begiratzea besterik ez dago. Garrantzitsuena lehenengo zenbakia da. Horrek adieraziko digu oiloaren bizi kalitatea, egoera duinean bizi den ala ez.

LEHENENGO ZENBAKIA:
**3 bada:** oiloa kaiolan pilatuta bizi da. Ziurrenik bizitza osoan eguzkirik ez du ikusi. Mokoa mozten diete beste oiloekin mokoka ez aritzeko. Bakoitzari dagokion tokia orri baten azalera baino txikiagoa da.
**2 bada:** oiloa nabe bateko zoruan bizi da oilo askorekin batera. Ez dute ia mugitzeko tokirik izaten. Hauei ere mokoa mozten diete. 12 oilo bizi daitezke m2 bakoitzeko.




**1 bada:** kanpoaldean landan dabiltzan oiloak dira. Oilo dentsitatea ezin da izan batekoa baino altuagoa 4 metro karratuko. Nolabaiteko askatasuna daukate.
**0 bada:** oilo hauen arrautza ekoizpen ekologikotik datorrela esan nahi du. 1 zenbakia dutenen antzera, hauek ere kanpokaldean landan ibiltzen dira, baina oilo hauen elikaduraren %80-k nekazaritza ekologikoan oinarritua egon behar du.

Beraz, norberaren esku gelditzen da arrautza eta oiloaren bizi kalitateari zenbaterainoko garrantzia ematen dion. Denboran aurrera modernizatzen edo atzeratzen goazen hausnartzea bezala.

# Trauma: esperientziaren arabera



arrate garitaonandia
PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA

**Zer da trauma bat? Batzuetan, egoera traumatiko bat traumarekin nahasten da.** Eta egoeraren handitasuna edo larritasuna ere trauma kontzeptuarekin nahasi ohi da. Shock-arekin eta uholde emozional baten ondorioz bizitako esperientziak prozesatu ezin ditzakeen burmuinarekin zerikusia daukan aspektu indibiduala da trauma.

Esperientzia traumatiko eta traumaren arteko desberdintasuna laguntza ematen duen beste baten presentzia da. Hau ez bada posible eta gertatutakoa jasotzen eta laguntzen duen inor ez badago, orduan esperientzia kapsulatu egiten da eta trauma bihurtzen da. Kontrara, epaitu gabe entzun eta lagundu dezakeen baten bat baldin badago (aita, ama, irakaslea, laguna, profesionala), orduan, nahiz eta esperientzia gogorra izan, pertsonaren narratiban integratu ahal izango da eta, ondorioz, etorkizunean ondorio latzak ez izatea gerta daiteke. Hau da, esperientzia traumatiko bat.



**Zer gertatzen da burmuinean?** Oroitzapen traumatikoak nahaspilatuta egoten dira. Agian detaile batzuk zehaztasunarekin gogora daitezke, baina gertaeren sekuentzia eta bestelako ezinbesteko detaileak ez dira gogoratzen. Horregatik, bortxaketa izan duen biktima batek ezin du hutsunerik eta kontraesanik gabeko kontaketa egin… Aspektu hau zientifikoki ondo dokumentatuta dago, baina dirudienez oraindik ez du behar bezalako pisurik biktimaren babes legalean.

Garun-azal prefrontalak ez du funtzionatzen, sekuentziatzeko gaitasuna txikitu egiten da eta baita kausa-efektua erlazionatzeko gaitasuna ere. Ondorioz, burmuina nahaspilatu egiten da.

Prozesu hau gertakari larrietan gertatzen da (abuso sexuala, tratu txarrak…), hau da, trauma zorrotzaz eta trauma akumulatiboaz ari gara. Horretan, babesgabetasun egoerek gutxinaka burmuina kolapsatu egiten dute eta amigdala gainestimulatu.

**Erreparazioa egon daiteke?** Traumaren erreparaziorako, material inkonszientea bilakatu den esperientzia emozionala narratiba kognitibo eta linguistiko konsziente batekin elkartu behar da. Horretarako. beharrezkoa da kualifikatutako profesional baten laguntza modu terapeutiko batean gogoratzea. Kontuan izan, gogora ekartzea, terapeutikoa dela, eta berriro "bizitzeak" berriro traumatizatzea esan nahi duela.



## Hiru domina irabazi zituen Maite Barruetabeña igerilariak Espainiako igeriketa txapelketan

**Lan bikaina egin zuten aurreko astebururuan igeriketako Espainiako junior eta absolutu mailetako txapelketetan** parte hartu zuten Maite Barruetabeña eta Jon Osa Eibar Igerixan klubeko ordezkariek. Lehiaketetako lehen egunean Barruetabeñak zilarrezko domina irabazi zuen 50 metro libreko proban eta brontzezkoa bizkar erako 100 metrokoan. Jon Osak, bestalde, bere markak hobetu zituen eta bizkar modalitateko 100 metrokoan bosgarren postuan sailkatu zen. Biak ere hainbat finaletan hartu zuten parte. Azken bi egunetako saioetan ez ziren atzean geratu eta berriro izan genituen lehen postuetako borrokan: 100 metro libretan Barruetabeñak zilarrezkoa bereganatu zuen juniorretan eta, hori gutxi balitz, 17 urteko Euskadiko marka egin zuen 200 estiloko proban; Jon Osak, bestalde, marka egin zuen libre erako 200 metrokoan.

## Deltecoko hirukotea Zaragozan

**Delteco Triatloi Taldeak Zaragozako El Rincon triatloi sprintaren** hirugarren edizioan hartu zuen parte aurreko domekan, hiru ordezkaririkin. Ebron igerian egin ondoren, gora eta behera jardun zuten bizikleta gainean hondartza batean antxitxiketan egiten amaitzeko. Moises Altuna 78. postuan helmugaratu zen, Gaizka Altuna gaztea lau minutu eta erdira 114. tokian eta Esther Pagei 19. emakumezkoa izan zen.





## Urbat waterpoloko jubenilek maila eman zuten Bartzelonan

**Davide Cerchiren mutilek lan bikaina egin zuten aurreko asteburuan Bartzelonan jokatutako** jubenil mailako Espainiako A txapelketan. Amore eman behar izan zuten Bartzelona eta Real Canoe talde indartsuen aurrean, baina lehiaketa berean ondo gainditu zituzten Metropole eta Turia. Garaipen handi horiei esker eibartarrek bederatzigarren postuan amaitu zuten txapelketa, *"benetan maila handiko lorpena Eibarko waterpolorako"*.

## Eskozia la Bravak Leonen jokatuko du peñen arteko XII. Torneoa

**Asteburu betea izango du Eskozia la Bravak Leonen, gaur hasi eta domekara arte** iraungo duen XII. Peñen Arteko Torneoaren barruko egitarauari jarraituta. Cultural Leonesaren Toribio Moran peñak antolatutako edizioari ekiteko gaur 20:00etan Humedo auzoan geratuko dira, elkartu eta *"pote batzuk hartu ondoren"* Via Principales jatetxean afaltzeko, Leongo katedralaren ondoan. Eibartarrekin batera beste zortzi peña izango dira parte hartzen: Peña Burgalesa (Athletic-ena), Resaca Blanquirroja (UD Logroñes), Leioazaleak (Leioa), La Cuadrilla (Burgos CF), Crianza Rojilla (Calahorra) eta Ezkerraldeak (Barakaldo), Toribio Moran (Leonesa) anfitrioiarekin batera.

Bihar multzoetako fasea jokatuko da eta eibartarrei "heriotzarena" egokitu zaie, B multzo horretan Leiozaleak, La Kuadrilla eta Ezkerraldeak peña indartsuak izango baitituzte aurkari. Goizeko saioko partiduak 10:00etan hasiko dira eta 13:30ean amaituko, gero arratsaldean 16:00etan hasi eta 18:30ak arte jarraitzeko. Domekan azken fasearen ordua izango da, finalerdiak eta finala tarteko. Gutxi gorabehera 150 peñista izango dira torneoan eta Eskozia la Bravak honako taldea osatu du: Naiara Muñoz ateazpian; Yeray Arostegi, Joseba Combarro, Santi Olarte eta Fernando Fernandez atzealdean; Ruben Pedraza erdian; eta Ruben Flores eta Ekain Zurro erasoaldean.



# Eibar FT-k aurredenboraldia hasi du

## Atxabalpen entrenatzen hasita




Aurreko asteko eguaztenean hasi zituen entrenamenduak Eibar FT-ko lehen taldeak, aurreko bi egunetan azterketa medikuak pasatu ondoren. Atxabalpen honakoek hartu zuten parte: Yoel, Riesgo eta Markel Areitio atezainak; Calavera, Ruben Peña, Galvez, Arbilla, Ramis, Paulo, Martinez, Cote eta Kike Pina atzelariak; Rivera, Jordan, Diop, Escalante, Alain Ribeiro, Alejo, Pedro Leon, Pere Milla, Orellana eta Bebe erdilariak; eta Sergi Enrich, Kike Garcia, Charles eta Nano aurrelariak. Unai Elgezabal atzelaria eta Pablo Hervias erdilaria (biak Valladolidekin jokatu zuten igoera fasea eta baita 1. Mailara igo ere) astelehen honetan sartu ziren taldean eta Marko Dmitrovic atezainak bihar du hitzordua Mundialean izan ondoren. Orain arte Mendilibarren taldeak fitxaketa bakarra egin du: Bartzelona B-tik libre etorri den **Jose Antonio Martinez atzelariak** 2021eko ekainaren 30era arte sinatu du.

## Eibar-Reala gaur Ipuruan

Martitzenean Atxabalpen Tudelanoren aurka jokatutako partiduaren ondoren, honako lagunarteko partiduek osatuko dute aurredenboraldiko egitaraua: gaur bertan, 18:00etan hasita, Ipuruan Reala izango dute aurkari eta bihartik hilaren 29ra arte Austriako Kossen herrian egingo du hamar eguneko stage-a. Egun horietan hiru neurketa jokatuko dituzte: **hilaren 23an**, 15:30ean hasita, **Istanbul Basaksehir** Turkiako taldearen aurka; hurrengo egunean, **24an**, **Swansea** Ingalaterrako taldea izango dute aurrean, Kufsteinen 19:00etan jokatuko den norgehiagokan; eta **Stuttgart** alemaniarrari egingo diote aurre hilaren **29an**, Heimstetten herrian 15:30ean jokatuko den partiduan. Behin hona bueltatu eta abuztuan sartuta, **Osasuna**ren aurka jokatuko dute Varean **abuztuaren 3an**, eta **Huesca** igoberriaren kontra **hurrengo egunean** Tuteran, arratsaldeko 19:00etan hasita, Ciudad de Tudela torneoaren barruan. Handik astebetera, **abuztuaren 11n**, **Hoffenheim** izango dute aurkari, Sinsheimeko Rhein Neckar Arenan 15:30ean hasiko den neurketan.



Gaurko partidua Gipuzkoako Federazioaren ehun urteak ospatzeko ekitaldietako bat da eta probintziako lehen bi taldeek neurtuko dituzte indarrak. Horrez gain, Mundialean ezarritako Var sistema estreinatuko dute Ipuruan, hau da, epaileari laguntzeko teknologia erabiliko dute eta partidua ETB-k eskainiko du zuzenean. Partidurako sarrerak erosteko txarteldegia zabalduko dute bi ordu lehenagotik, 16:00etan, 1B txarteldegian. Tribunako sarrerak 20 eurotan daude salgai, Fondoetakoak 15 eurotan, eta harpidedunek eta umeek 10 euro ordaindu beharko dute.

Eibartarrek jokatutako aurredenboraldiko lehen partiduan, 4-0 nagusitu zitzaien 2. B mailako Tudelanori Atxabalpen, Nano, Kike Garcia, Charles eta Escalanteren golekin. Calavera atzeko hegalekoak zuntz-haustura izan zuen eta baja izango da hiru asterako.

## Eibar FTk inoiz izan dituen emaitzik onenak azken denboraldian

Harrobi lan ikaragarria dihardu egiten azken aldian talde gorri-urdinak eta horren emaitza izan dira azken denboraldian maila guztietan eskuratutako postuak. Esaterako, Erregional Gorengoen mailako Eibar Urko Ohorezko mailara igo da, Gipuzkoako txapela janzteaz gain, eta gauza bera eskuratu du Ohorezko jubenil mailako taldeak Euskal Ligara igota, ligan bigarren geratu ondoren. Aipatutako igoera horiei honako postuak gehitu behar zaizkie: emakumezkoen lurralde mailako eta kadeteetako ohorezkoak, liga amaitu arte txapelketa irabazteko borrokan buru-belarri sartuta egoteaz aparte, bigarren amaitu zuten euren liga: Postu bera eskuratu zuen infantil txiki mailako mutilen taldeak, hirugarren sailkatu ziren kadeteen ohorezko mailako eta infantil ohorezko mailako taldeak,

## Vitoriak zazpi fitxaketa

EIBAR FT-REN FILIALAK, VITORIAK, ORAIN DELA ZAZPI EGUN, AURREKO BARIXAKUAN, HASI ZUEN AURREDENBORALDIA. 2. B mailan jokatu berri duen lehenengo denboraldian mailari eustea lortu du eta hurrengo denboraldirako helburu berbera izango dute Igor Gordobilen aginduetara jardungo duten mutilek. Iaz modua, taldeak Gasteizko Olaranbe zelaian jokatuko ditu etxeko partiduak. Iazko taldetik zortzi baja izango ditu Vitoriak: Pastor, Amelibia, Azkue, Martinez, Sarriegi, Moreno, Ibargoien eta Etxaburu -azken honek Real Unionen jokatuko du-. Eta fitxaketen arloan zazpi dira taldeak ekarri dituen jokalariak: Atienza (Fuenlabrada), Malon (Lorca), Dios (Osasuna), Hernandez (Ucam Murcia), Lazaro “Kaiser” (Levante), Miguel Mari (Valladolid) eta Kike Pina (Merida), guztiak ere 2021eko ekainera arte sinatu dutenak. Berrizen egin zuen aurkezpenean Urkoko lau jokalariekin -Lander, Dufur, Leiza eta Ekhiaurkeztu zen Vitoria eta, bestalde, Areitio atezainak, Pinak eta Ribeirok lehen taldearekin entrenatuko dute.

Bigarren B mailako bigarren multzoan jokatuko dute Eibar FT-ko filialekoek, beste 11 euskal talderekin (Amorebieta, Athletic B, Arenas, Barakaldo, Gernika, Leioa eta Durango igoberria bizkaitarrak, Real Union eta Sanse gipuzkoarrak eta Izarra eta Tudelano nafarrak), Errioxako Logroñes eta Calahorra, Gaztela-Leongo Mirandes, Kantabriako Racing eta Gimnastica Torrelavega eta Asturiaseko Sporting eta Oviedoren bigarren taldeak eta Langreorekin.

Bestalde, taldeak orain arte bost partidu lotu ditu aurredenboraldirako: **datorren martitzenean Santanderko Racing**-aren aurka jokatuko dutena Kantabriako hiriburuan, hilaren **28an Sodupe**ren kontra jokatuko duena Hurtado de Saratxon eta, behin abuztuan sartuta, **1ean Real Union** aurrean dutela, **4an Gernika**ren zelaian eta **11n** Gobelasen **Arenas**en aurka.





## Emakumezkoek igotzea helburu

AZKEN DENBORALDIAN LOGROÑO ETA ATHLETIC B-REN ATZETIK SAILKAPENEKO HIRUGARREN POSTUAN amaitu zuen emakumezkoen Eibar FT-ren lehen taldeak gorengo mailara igotzea helburu duela abiatuko du 2018-19 denboraldia 2. Maila Nazionalean. Horretarako hainbat aldaketa egin dituzte taldean, Jordi Telletxea entrenatzaile berritik hasita: azken urteotan Hernani igo du Liga Nazionalera eta jubenil mailako Ohorezko mailara. Berarekin dator Urtzi Arevalillo prestatzaile fisikoa eta, staff teknikoa osatzeko, Aiheko Uriaren (bigarren entrenatzailea) eta Asier Reyren (atezainen prestatzailea) laguntza izango du. Urteetan emakumezkoen oinarrizko taldeekin lan egin duen Juan Araujo izango da delegatu berria.

Igoerari begira, taldeak Realean hainbat denboralditan jokatu duten lau jokalari fitxatu ditu: Cristina Cornejo atezaina (9 denboraldi Realean), Itziar Gastearena atzeko hegalekoa (8 denboraldi Donostiako taldean), Leyre Fernandez erdilaria (4 denboraldi) eta Titay Calvo erdilaria (Oiartzunen 1. mailara igo zuen eta hiru denboraldi eman ditu Realean). Horrez gain, Añorgatik etorritako 19 urteko **Ines Aiestaran atzelari gazteak** ere Eibarrekin jokatuko du hemendik aurrera. Aipatuez gain, bigarren taldeko Eider Egaña, Irati Etxeberria, Uxue Iparragirre eta Nahia Larrinagak ere lehen taldearekin egingo dute aurredenboraldia.





laugarren sailkatu zen jubeniletako Ohorezko mailakoa eta 8. postuan geratu zen kadeteen mailako Euskal Ligakoa.

Raul del Pozo oinarrizko fobaллaren zuzendariak dioenez *“3. Mailara eta Jubeniletako Liga Nazionalera”* igotzeko helburuak izango ditu erronkatzat Eibar FT-k hurrengo denboraldian. Horretarako, baina, espazioa behar dute talde guztiek behar den moduan entrenatzeko *“eta gaur egungo egoera nahiko kritikoa da, gutxieneko mailatik beherago gaude”*, Del Pozoren esanetan.



**JULIO CALLEJA:** Kandelak Arraten irailaren 8an.

# IRATI ICIAR:
# "Udako Ikastaroak *ElkarEkin* leloa gauzatzeko lekua dira"

46. Udako ikastaroak amaitu berri dira, eta orain balorazioa eta gogoeta egiteko unea iritsi da. Hauxe da Irati Iciar Udako ikastaroetako zuzendariak aurreratu diguna, eta ez da gutxi.



*Udako ikastaroen antolaketarekin azaroan hasten dira UEUn, eta uztailaren amaierara arte luzatzen da lana.*

***– 46. Udako ikastaroak amaitu berri direnean, balorazioak egiteko ordua heldu da. Zein balorazio egiten duzu?***

Balorazioa egiteko goiz bada ere, ikastaroak amaitu berri direlako, orokorrean balorazio positiboa egiten dugu. Ikasturtearen hasieran markatutako helburuak bete ditugula esan daiteke. Alde batetik, eskaintzari eutsi. 35 ikastaro eskaini ditugu eta %85ek edo aurrera egin dute. Partaide kopuruaren inguruan ere helburua aurreko urteetako datuei eustea zen eta hori ere lortu da. Eta gure helburuetan azkena, eta guretzat garrantzi handiena daukana, partaideen asetasun maila da. Ikastaroak antolatu dituztenen zein parte hartu dutenen asetasuna lortzea. Euren helburuak lortu ditugula jakitea. Horretarako balorazio-orriak pasatzen ditugu. Oraindik ez ditugu ikusi, baina badaude bizipen batzuk, sentipen batzuk eta nabaritzen duzu jendea pozik egon dela, bere helburuak lortu dituela. Alde horretatik ere pozik.

***– Gasteizen hasi ziren Udako Ikastaroak. Lehenengoz egin da bertan.***

Udako Ikastaroetan, azken urteotan, konturatuko zinetenez, ikastaroak lekuz aldatzen joan gara. Eibar, Baiona, Iruñea izan dira urte askotan ikastaroen egoitza nagusiak; baina azken urteetan Usurbilen ere izan ditugu, Donostian ere bai. Mugitzen joan gara. Aurten, lehen aldiz,Udako Ikastaroak Arabara heldu dira, Gasteizera zehazki. Gasteizen ere beste hitzarmen eta elkarrekintza baten bitartez Oihaneder Euskararen Etxean egon gara. Eta gasteiztar gisa niretzat harrotasun handia da Udako Ikastaroak bertan hastea. Hasiera berezia lekuarengatik. Hasiera berezia baita gaiarengatik ere. Jardunaldi bat erabili dugu, Euskara Batuaren helduaroa. Eta jardunaldi horrek ere badauka elementu oso sentimental bat UEUrentzat, oso gauza polita izan da Jose Ramon Etxebarriari egin diogun omenaldia. Udako Ikastaroen hasiera oso polita izan da.

***– Aurten ere #ElkarEkin izan da leloa.***

Halaxe da, bai. Nire oroitzapenetan behintzat, Udako Ikastaroen leloa errepikatzen dugun lehenengo aldia da. Iazko lelo bera erabili dugu. Bereziki iaz hasitako ildotik, azpimarratzen jarraitu nahi dugulako zein garrantzitsua den UEUrentzat elkarrekintza, lankidetza, elkarkidetza hau. Konkretuki Udako Ikastaroetan elkarrekintza horrek bai izaten du nolabaiteko isla edo sinbologia berezia. Udako Ikastaroetan eskaintza egiteko orduan deialdi zabala egiten dugu. Aurten, adibidez, 100 proposamen inguru jaso ditugu. Orduan, UEUtik barrutik sortzen diren proposamenak, gehi UEUren inguruaren orbitan dabiltzan euskal erakunde eta profesionalak ere UEUrengan jartzen duten konfiantza hori ikusita eta UEUrekin elkarlanean aritzeko duten interesa ikusita, aurten ere lelo berbera erabili nahi genuen. "Honekin ere jarraitu behar dugu" esan genuen, eta baliteke datorren urtean ere jarraitzea.

***– Maila pertsonalean zein sentsazio? Emaitzarekin gustura?***

Egia esan, lan asko da. Urte osoko lana da. Askotan jendeak galdetzen dit: *"Zu orain lanean egongo zara eta gainerako hilabeteetan zer egiten duzu?".* Urte osoko lana da, esandakoa. Berez, hasi antolaketarekin, azaroa inguruan hasten gara, eta uztailaren amaierara arte luzatzen da. Eta jarraitzen dugu balorazioak egiten eta hurrengoa antolatzen. Pertsonalki, egia da, baditu bere momentu gogorrak ere. Lan askoko momentuak. Baina oso lan aberasgarria da. Nik hemen ezagutzen dudan jende kopurua, jende interesgarria, hemen ikusten ditudan ikasle, irakasleak, entzuten dudana edo ahal dudanean ikasten dudan pixka bat hori ere, oso oso aberasgarria da. Oso polita da. Eta nik esaten dudan moduan, ez dago besterik munduan. UEUren Udako Ikastaroak gureak bakarrik dira eta kasu honetan pribilegio hori daukat. Horren antolaketan ibiltzeko aukera hori daukat.



IMANOL MAGRO

## Gure paradisua

...eta kitto!koak alferkerian. Debarako trena Indiako dokumentaletan agertzen direnak baino beteagoa. Glaziar batetik ateratakoa dirudien kanpoko igerilekuko ura, eta toalla zabaltzeko tokirik ez belardian. Arratsaldeko seirak arte kaleak hutsik, western filmetan bezala. Siesta. Terraza gau amaigabeak udaltzainak agertu ez daitezen desiratzen. "Urtez urte gero eta jende gehiago gelditzen da Eibarren. Udak dagoeneko ez dira garai batekoak bezalakoak". Untzagako udako zinemako egurrezko aulki deserosoak. Ixten ez duten merkatalgune handiak, eta aire girotuaren bila joandako pasialariak. Asfalto jarri berri usaina. Ermuko jaiak. Obrak, zanjak, hodiak... "Honek Sarajevo dirudi". Larunbat gaueko parranda bikainak, koadrila bakoitzeko kaxkajoenarekin. Eibarren lagunarteko partida: 'Torneo de la Amistad'. Sanrokeak Deban. 35 gradu eta hezetasuna = gauean txalupa beharko duzu etxera joateko. Arrateko mahaiak beteta. Txikiteroak manga motzean. Parrillero dema. Ateak oso berandu irekitzen dituzten tabernak. Izter zuriak, ia distira egiten dutenak. Aldatzen ez dituzten eskelak. "Zu ere herria zaintzen?". Aparkatzeko nahi beste leku (miraria). Mantekau urtua ukabilan behera. Elgoibarko jaiak. Zenbat aldiz aldatu behar dituzte Guridi aurreko baldosak? Iraila gainean dugu, eta laster Gabonak. Arrateko jaiak, erroskilekin etxera. Paradisuak leku intimo eta pertsonalak dira, eta edozein bazterretan aurki daitezke. Gozatu Eibarko udarekin, nik makina bat pasatu ditut bertan, eta ez du beste lekuetakoen inbidiarik.



# Kezka taldeak "Les Folkloriades" jaialdian erakutsiko ditu euskal dantzak asteburuan

**Uda eta opor aroa hastearekin batera, asko dira etxetik kanpora saioak** eskaintzera animatzen diren dantzari eta musikari taldeak eta Kezka dantza taldekoek Frantziarako bidea hartu dute aurten, "Castelmoron sur Lot" herrian egiten duten "Les Folkloriades" jaialdian euren dantzak eskaintzeko. Azaldu dutenez, *"17. edizioa izango da aurtengoa eta Kolonbia, Serbia, Kirgizistan, Niger eta Euskal Herriko dantzariak batuko gara asteburu honetan, gaurtik domekara bitartean ospatuko den festan"*.

Castelmoron sur Lot Akitanian dago eta berez herri txikia da, *"urtean zehar ez da 1.800 biztanlera ailegatzen, baina jaialdiaren inguruan jendetza batzen da herriko kaleetan, handik eta hemendik joandako dantza eta musika talde ezberdinak ikusteko"*. Eibartarrek Euskal Herriko dantzak erakusteko ardura izango dute eta gaur hasiko den jaialdira, Arrate egunez Eibarren egiten dituzten trokeo dantzekin batera, San Juan gaueko soka-dantza eta Zuberoako dantzak ere eramango dituzte. Hiru egunetan jardungo dute dantzan: *"Barixakuan, zapatuan eta domekan eskainiko ditugu emanaldiak Folkloriades jaialdian. Lau izango dira guztira, zapatuan birritan dantzatuko baitugu oholtza gainean"*.



# Zabalik dago "Harixa Emoten" euskerazko irakurketa kluberako izen-ematea

**Datorren ikasturtean ere antolatuko dute "Harixa Emoten" helduentzako euskarazko irakurketa** kluba Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Astelehenean zabaldu zuten irakurketa-taldean izena emateko epea eta irailaren 7ra arte izango da horretarako aukera. Idazleak bere liburua irakurri dutenei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskaintzeko asmoz abiatutako ekimenak aurrez aurreko solosaldiekin lortzen du helburu hori betetzea. Arduradunek azaldu dutenez, kurtso berrian ere irakurleek Antxon Narbaizaren laguntza izango dute, liburuari mamia ateratzeko. Hilean behin izaten dira saioak, Portaleko Kulturako bilera gelan, 19:00etatik 20:00etara eta parte hartzea dohainik izaten da. Hori bai, behin izena emanez gero, saioetara joateko konpromisoa eskatzen zaio jendeari. 16 urtetik gorakoek har dezakete parte eta gehien jota 20 pertsona onartuko dira taldean. Lehen saioa irailaren 25ean izango da eta Karlos Linazasororen "6012" liburua aztertuko dute. Hortik aurrera, besteak beste, Garazi Arrula Ruiz, Gotzon Hermosilla eta Maixa Zugasti idazleak ere izango dira parte hartzen.



## Ohoreekin graduatu da Alemanian Andrea Gonzalez Caballero

Andrea Gonzalez Caballero gitarrajole eibartarrak Alemaniaraino eraman zuten ikasketak amaitu berri ditu. Umetatik nazioarteko mailako lehiaketa ugaritan sariak jaso dituen musikariak Joaquín Clerch irakaslearekin trebatzen jardun du eta, orain dela egun batzuk, Düsseldorf-eko (Alemania) Robert Schumann Musikhochschule-n ohoreekin graduatu da. Zorionak!



## Informatika klaseak euskeraz

Eibarko KZguneak, hileroko bere eskaintzaren barruan, uztailean ikastaro bi euskeraz egiteko aukera emango du: "Erosketa seguruak Interneten" izenburukoa astelehen eta martitzenean (uztailaren 23 eta 24an) izango da, 16:00etatik 18:00etara. Eta "Musika aplikazioak zure gailuetarako" ikastaroa, berriz, uztailaren 30ean emango dute, 16:00etatik 18:00etara. Ikastaro biak KZgunean (Portalean) izango dira.




## Arrateko bertso-afarirako sarrerak Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian

...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta Arrate egunaren bezperan egiten den bertso-afarirako sarrerak ohiko salmenta lekuetan, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian ipini dituzte salgai, 32 eurotan. Aurten ere maila goreneko lau bertsolarik jardungo dute afalostea girotzen: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso eta Aitor Sarriegi. Gai-jartzailea, berriz, Jon Mikel Mujika izango da.




## Zaragozako Zine Jaialdiak Gorka Aizpuruaren kartela izango du

Aurretik ere lehiaketa ugari irabazi dituen Gorka Aizpurua Serranok lehen saria eskuratu du XXIII. Zaragozako Zine Jaialdirako (FCZ) egindako kartelarekin. Lehiaketara aurkeztu diren 87 kartelen artean, sari nagusia jasotzeko eibartarrak egin duen "Isabel, Antonio, Pilar, Óscar, Carmen, León…" izenburukoa aukeratu dute epaimahaikideek eta aste honetan eman dute jakitera hartutako erabakia. Irabazleak 600 euro eta diploma jaso ditu eta, gainera, bere kartela azaroaren 15etik abenduaren 1era bitartean Zaragozan egingo duten jaialdiko irudi ofizial moduan erabiliko dute. Saritutako lanaren egileak pertsona ezberdinen aurpegiak marraztu ditu, Zaragozako gizartea irudikatu nahi duen lehoiarekin batera. Aizpuruaren berbetan, kartela *"zinearen oinarrizko zutabeetako bati egindako omenaldia"* da, *"publiko barik ez litzatekeelako zinerik existituko. Gainera, lehoiarekin Zaragozari keinu egin nahi izan diot"*.



## Azkaiter Pelox hirukotearen kontzertua Legarreko Tarte-n

Legarreko Tarte Kafetegiak domeka eguerdietako kontzertuei eutsiko die uztailean ere eta, hileko lehen domekan Mugi Panderoa taldearekin oinak eta gorputzak ondo astindu eta gero, domeka honetan Azkaiter Pelox Bergarako hirukotearen txanda izango da. Eguerditik aurrera jardungo dute zuzenean, rock eta swing doinuetako bertsioak eskaintzen.

# Udako zinea abuztuko eguen gauetan

Urte batzuetako etenaldia eta gero, iaz berriz heldu zieten udako zine-emanaldiei Udaleko Kultura sailekoek. Abuztuan Eibarren geratzen den jendeak asko eskertzen duen jarduera da, are gehiago kontua hartzen badugu Coliseoan ez dela zinerik proiektatuko irailaren erdialdera arte. Gainera, urteko sasoi honetan, eta auzoetako jaiak agurtu ondoren, urtean zehar herrian izaten dugun kultur ekitaldien eskaintza ia ia desagertu egiten denez, herritarren aisialdia betetzeko aukerak nabarmen murrizten dira. Gauzak horrela, eta iaz Untzagan proiektatu zituzten filmek oso harrera ona izan zutela ikusita, aurten ere udako zinea antolatuko dute Kultura sailekoek.

Iaz egindakoari jarraituta, aurten ere Bizkaiko Servifilms enpresaren eskutik izango dira zine emanaldiak eta Udalak 6.000 euro inguru bideratu ditu horretara, filmak proiektatzeko eskubideak barne. Aurtengo egitaraua lau pelikulak osatzen dute: horietako bi euskeraz emango dituzte eta beste biak, berriz, gazteleraz. Euskerazkoen kasuan, film biak animaziozkoak izango dira eta gazteleraz emango dituzten beste biak, berriz, sari ugari jaso dituzten pelikulak dira.

Udako zine emanaldiak eskaintzen hasi zirenetik gaur arte, urte batetik bestera gorabeherak izan ohi dira publikoaren harrerari begira. Hala ere, garairik okerrena 2012. urtean izan zen, krisi ekonomikoarekin batera ailegatu ziren aurrekontuaren murrizketen ondorioz, ordura arte Udalak eta Ego Ibar zineklubekoek elkarlanean antolatzen zituzten udako zine-emanaldiak bertan behera laga behar izan zituzten eta. Iazko erantzunarekin pozik daude, baina: batazbeste 125 ikusle izan zituzten iaz emandako pelikulek eta, jende gehien batu zen egunean, 160 ikusle izatera ailegatu ziren. Eguraldiak ere zeresan handia dauka jendea animatzeko orduan, euriarekin jende gutxiago ibiltzen da eta.

Iaz bezala, proiekzioak Untzaga plazan, harmailen aldean egingo dituzte eta, horretarako, pantaila-puzgarri handi bat erabiliko dute arduradunek. Horrela, besteak beste, ikustera joango den jendearentzat aulkiak ipintzeko beharrik ez dago, ikusleek harmailetan jarrita ikusteko aukera dute eta. Eta, euria eginez gero, emanaldiak lehen egiten zituzten bezala, udaletxeko arkupeetan eskainiko dituzte. Kulturatik adierazi dutenez, *"iaz arkupeetan egindako emanaldietara joandakoak kiratsarekin kexatu egin ziren. Aurten, baina, ez da horrelakorik gertatuko, kexak kontuan hartu eta garbiketari arreta berezia eskainiko diogulako"*. Pelikulak ikusteko *"sarrera"*, jakina, doan izango da.




***Abuztuaren 2an***
*"Ballerina"*
*90 minutu / Animazioa, euskaraz*
*Zuzendaria: Eric Summer*




***Abuztuaren 9an***
*"Verano 1993"*
*97 minutu / Drama*
*Zuzendaria: Carla Simon*




***Abuztuaren 16an***
*"Batman Lego"*
*104 minutu / Animazioa, euskaraz*
*Zuzendaria: Chris McKay*




***Abuztuaren 23an***
*"La La Land"*
*127 minutu / Musikala*
*Zuzendaria: Damien Chazelle*

Abuztuko lehen lau eguenetan emango dituzte pelikulak, 22:30ean hasita. Euskeraz ikusi ahal izango diren "Ballerina" eta "Batman Lego" filmak Zineuskadi elkarteak sustatzen duen Zinema Euskaraz programari zor diogu, itzulpena egitasmo horri lotuta dagoelako. Iazko urtarrilean estreinatu zuten "Ballerina" filma euskeraz. Azken urteotan Europan egin den animaziozko koprodukziorik handienetakoa da, eta orain arte estreinatu den herrialdeetan *"izugarrizko arrakasta"* izan du. Dantzari izan nahi duen neskatila batek Parisen biziko dituen abentura zirraragarriak ekarriko dituen filma da. Eta "Batman Lego" filmaren euskerazko bertsioa ere iazko otsailean estreinatu zuten. Pelikula hori ere beste ekoizpen handi bat da, kasu honetan, Warner Bros Pictures etxeak ekoitzia. Superheroien munduan murgiltzen da, aurrekari duen "Lego" filmak ematen dion bermea horretarako baliatuta. Zinema Euskaraz programa *"urrats kuantitatibo eta kualitatiboak"* ematen ari da azken urteotan eta, arduradunen berbetan, *"geroz eta gehiago dira euskarara bikoizten diren filmak, eta ez hori bakarrik, bikoizten diren filma horien kalitateak gora egin du nabarmen"*.

## telefono jakingarriak

**SOS deiak**................................*112*
**Pegora**......................................*010*
**Udaletxea**..................*943 70 84 00*
**Portalea**.....................*943 70 84 39*
**Udaltzaingoa**.............*943 20 15 25*
**Mankomunitatea**.......*943 70 07 99*
**Debegesa**..................*943 82 01 10*
**KIUB**..........................*943 20 38 43*
**Epaitegia**...................*943 03 34 00*
**Iberdrola**....................*901 20 20 20*
**Naturgas**....................*902 12 34 56*
**DYA Larrialdiak**.........*943 46 46 22*
**Gurutze Gorria**..........*943 22 22 22*
**Mendaro osp.**............*943 03 28 00*
**Anbulategia**...............*943 03 25 00*
**Torrekua**....................*943 03 26 50*
**Errepideak**.................*902 11 20 88*
**Ertzaintza**..................*943 53 17 00*
**Eusko Tren**................*902 54 32 10*
**Lurraldebus**..............*900 30 03 40*
**Pesa**...........................*900 12 14 00*
**Taxiak**........................*943 20 30 71*
..................................*943 20 13 25*
**Alkohol.Anon.**...........*629 14 18 74*
**Al-Anon/Alateen**.........*650 26 59 63*

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Leonor Lopez Saiz.** 87 urte. 2018-VII-11.
- **Isabel Gallastegi Alzola.** 92 urte. 2018-VII-11.
- **Juan Echetto Etxeberria.** 80 urte. 2018-VII-12.
- **Julia Ruiz Santamaria.** 78 urte. 2018-VII-14.
- **Antonio Buendia Buendia.** 83 urte. 2018-VII-15.
- **Teresa Salinas Padilla.** 86 urte. 2018-VII-16.
- **Manuel Perez Merino.** 75 urte. 2018-VII-16.
- **Alberto Guenaga Irusta.** 76 urte. 2018-VII-19.

## jaiotakoak

- **Yasin Karmaqui El Chabali.** 2018-VII-11.
- **Ager Lafuente Oleaga.** 2018-VII-14.

## Erakusketak

**Uztailaren 22ra arte:**
– **"JOSE KAREAGA ARTISAUA/ARTISTA 1930-2008"** *(Oxford Aretoa -ZUMAIA-)*

**Uztailaren 31ra arte:**
– **ARTURO GONZALEZ ASCASOREN ARGAZKIAK ETA Mª LUISA RUBIOREN POESIAK** *(Eibarko Klub Deportiboa)*
– **"SAHARAR KANPALEKUAK" JOSE LUIS IRIGOIENEN ARGAZKIAK** *(El Ambigú kafetegia)*
– **"ARGAZKI RALLYA 2018"** *(Portalea jatetxea)*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 9 | | | 4 | | | | |
| | | | | 5 | | | | 7 |
| 6 | 1 | | 3 | | 2 | | | 5 |
| | 2 | | 7 | | | | 6 | 9 |
| | | | 9 | | 5 | | | |
| 7 | 3 | | | | 4 | | 2 | |
| 9 | | | 2 | | 3 | | 8 | 6 |
| 3 | | | | 6 | | | | |
| | | | | 8 | | | 5 | 1 |

## SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | 9 | 3 | 8 | 2 | 4 | 1 | 6 |
| 3 | 1 | 8 | 5 | 6 | 4 | 9 | 7 | 2 |
| 4 | 2 | 6 | 7 | 1 | 9 | 5 | 8 | 3 |
| 8 | 9 | 5 | 4 | 3 | 7 | 6 | 2 | 1 |
| 1 | 3 | 7 | 2 | 5 | 6 | 8 | 9 | 4 |
| 6 | 4 | 2 | 1 | 9 | 8 | 7 | 3 | 5 |
| 2 | 6 | 4 | 8 | 7 | 1 | 3 | 5 | 9 |
| 9 | 8 | 3 | 6 | 2 | 5 | 1 | 4 | 7 |
| 7 | 5 | 1 | 9 | 4 | 3 | 2 | 6 | 8 |

MUGIKA
HARATEGIA
Urkizu, 18 943120194

Abuztuan ere
goizez zabalik
08:30-13:30

# UDAKO ORDUTEGIAK

**PEGORA**
**010 / 943 708 400 pegora@eibar.eus**
– Astelehenetik barixakura: 08:30-13:30
(telefonoz, 08:00-14:00)

**PORTALEA**
**943 708 439 kultura@eibar.eus**
– Uztailean, astelehenetik barixakura: 09:00-20:30
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30

**LIBURUTEGIA**
**943 708 437 liburutegia@eibar.eus**
– Uztailean, astelehenetik barixakura:
09:00-13:30 eta 16:30-19:30
– Abuztuan, astelehenetik barixakura: 09:00-13:30
(hilaren 7tik 18ra, gela polibalentea bakarrik)

**MUSEOA**
**943 708 446 museoa@eibar.eus**
– Uztailean, martitzenetik barixakura: 16:00-20:00
– Abuztuan, martitzenetik barixakura: 10:00-13:30

**IPURUA KIROLDEGIA**
– Abuztuan, astelehenetik zapatura:
09:00-13:00 eta 16:00-20:00
– Domeka eta jaiegunetan: 09:00-13:00
– Abuztuaren 7tik 20ra itxita, biak barne
– Abuztu osoan, igerileku estalia itxita egongo da
– Kanpoko igerilekua: 10:30-20:00 (irailaren 11ra arte)

**UNBE KIROLGUNEA**
– Uztailaren 22tik abuztuaren 6ra, egun biak barne, itxita
– Abuztuaren 7tik 31ra, astelehenetik zapatura: 10:00-20:00
– Domeka eta jaiegunetan: 09:00-14:00

**ORBEA KIROLDEGIA**
– Uztailaren 27tik 31ra, egun biak barne,
igerilekua itxita egongo da
– Uztailaren 24an eta 25ean, kiroldegia itxita
– Abuztuan, astelehenetik barixakura:
09:00-13:00 eta 16:00-19:00
– Zapatuetan: 09:00-13:00
– Domeka eta jaiegunetan, itxita

**ORBEA SPA**
– Uztailaren 25etik abuztuaren 25era, biak barne, itxita







## farmaziak

Barixakua 20
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Zapatua 21
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Domeka 22
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 23
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Martitzena 24
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Eguaztena 25
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguena 26
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Barixakua 27
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Zapatua 28
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 29
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Astelehena 30
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Martitzena 31
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

ABUZTUA
Eguaztena 1
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Eguena 2
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Barixakua 3
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Zapatua 4
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Domeka 5
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Astelehena 6
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Martitzena 7
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguaztena 8
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguena 9
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Barixakua 10
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Zapatua 11
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 12
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 13
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Martitzena 14
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Eguaztena 15
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Eguena 16
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Barixakua 17
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Zapatua 18
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 19
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 20
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Martitzena 21
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Eguaztena 22
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Eguena 23
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Barixakua 24
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Zapatua 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Domeka 26
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 27
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Martitzena 28
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Eguaztena 29
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Eguena 30
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
Barixakua 31
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)

IRAILA
Zapatua 1
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Domeka 2
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Astelehena 3
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Martitzena 4
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Eguaztena 5
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
Eguena 6
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI
Lafuente (Sostoatarren, 10)

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, HARITZ, txapeldun. 8 urte honezkero, mutil haundi! Eta musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, KOLDO, hillaren 27xan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Ikerren partez.



Zorionak, DANIELA, hillaren 23an 5 urte beteko dozuzelako. Besarkada eta musua etxekuen eta, batez be, Ibairen partez.



Zorinak, amama MARGARI, zure 100. urtebetetzian! (gaur). Musu bat seme-alaba, illoba, birbilloba eta Myriamen partez.



Zorionak AMETS, etzi 12 urte beteko dozuz-eta. Oso pozik gaude zurekin, jarraittu holan! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE Laskurain Olañeta, haraiñegun 9 urte bete zenduazen-eta. Zure famelixaren partez, bihotz bihotzez.



Zorionak, MADDI, pitufiii!!! Hillaren 25ian 3 urte!!! Ez galdu sekula irrifar politt hori!!! Patxo haundi bat etxekuen partez!!!



Zorionak, MARIFRAN, etzi urtiak beteko dozuz-eta! Kriston pilla maite zaittugu, ama! Etxekuen partez.



Zorionak, ENEKO, gaur 8 urte egitten dozuz-eta! Musu potolo bat etxekuen partez.



Zorionak, MANEX!!, hillaren 26xan 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat familixaren eta, batez be, Intzaren partez.



Zorionak, MIXEL, hillaren 27xan 4 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat tio Iñigo eta amama Arantxaren partez.



Zorionak, ANE!!, etzi 12 urte ospatuko dozuzelako! Munduko lehengusiña onena zara. Segi holan! Ixone eta Amaiaren partez!



Zorionak, ANE eta SARE, abuztuaren 5ian 13 eta 7 urte beteko dozuezelako. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, MADDI, hillaren 31n 4 urte beteko dozuz-eta. Musu potolo bat danon eta, batez be, JAREren partez!



Zorionak, PAULA!, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuon partez.



Zorionak, AMETS, gaur 4 urte betetzen dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, ELAIA! Zu bai zarela Mundiala!

---



# ALBERTO GÜENAGA IRUSTA

*2018ko uztailaren 19an hil zen, 76 urterekin*



*Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.*
*Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun*
*ilusioa eta indarra.*

**ETXEKOAK**

# iragarkilaburrak


**1. ETXEBIZITZA**
- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
- 2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

**4. LANA**
- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus


i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelarekin. Tel. 617-674927.

– Buhardila alokatzen da Txontan. 5. pisua, igogailu barik. Prezio interesgarria. Tel. 626-144098.

– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Igogailua. Erabat ekipatuta. Tel. 645-728317.

– Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 618-854121.

– Logela alokagai. Merkea eta erroldatzeko aukerarekin. Tel. 632-271530.

– Pisua alokagai Ermuko erdialdean. Sukaldea, 2 logela, egongela, komuna eta despentsa. Tel. 669-209183.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokal komertziala alokagai Birjiñape 1ean (Sokoa ondoan). 33 $m^2$. 250 euro. Tel. 688-678934.

– Garaje itxia alokagai Arrate Bide 17an. Tel. 639-491422.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-532426.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 627-230784.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 9 urteko esperientzia. Tel. 631-771822.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-896116.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 649-025614.

– Emakume arduratsua eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 631-424584.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-808708.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 628-929146.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 612-245623.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-837079.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-413892.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-398596.

– Eibarren bizi den gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 631-371332.

– Neska euskalduna eskeitzen da goizez umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 676-553093.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-798284.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 612-273591.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi malgua. Tel. 632-083081.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-914989.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-505258.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 670-032797. Eliana.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 634-155413. Lina.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-534197.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 617-610706. Isabel.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean zein ospitalean) edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-941067.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 634-709827.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 666-197831 eta 631-624304.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. Tel. 632-993066.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-436462.

– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko (pisu, pegora, taberna edo soziedadeetan) eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-426847.

### 4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-308025.

– Neska behar da umeak eskolatik jasotzeko. Tel. 653-701630.

– Sukalde-laguntzailea eta kamarera/o behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.

– Emakumea behar da adineko pertsona zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egunean ordu batzuk. Berehala hasteko. Bidali erreferentziak: maunibi@yahoo.com

– Neska/emakume euskalduna behar da irailetik aurrera arratsaldez umea zaintzeko eta etxeko lanetarako. Deitu iluntzean. Tel. 676-105492.

– Banatzaileak behar dira ...eta kitto! astekaria banatzeko. Tel. 943-200918 eta 943-206776. banaketa.etakitto@gmail.com

– Pertsona behar da frutadenda batean lan egiteko. Esperientzia. Tel. 647-573356.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Esku-ohea salgai, gorputz eta aurpegiko tratamendu eta masajeetarako. Oso egoera onean. Tel. 696-359677.

– Binilozko disko, single eta LP-ak erosten ditut. Tel. 688-624326.

### 6.2. Eman

– Katakumeak oparitzen dira. Tel. 643-681509.

### 6.4. Bestelakoak

– Itzioko DBH 3. mailako liburuak salduko nituzke eta DBH 4. mailakoak erosi. Tel. 618-491604.

– Aulki gurpilduna behar dugu. Gehienez 60 zentimetroko zabalerakoa. Tel. 616-909630.

– Itzioko DBH 4. mailako liburuak erosiko nituzke. Tel. 634-464120.

– Itzioko 4. Mailako liburuak behar ditut. Tel. 688-890837.




Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berria aukeratuko duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

**OARSO CAR**
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
www.oarsocar.com

**ELGOIBAR** Olaso Polig., 17 943 74 14 80

**OIARTZUN**
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

**BEASAIN**
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

**IRUN**
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69

HYUNDAI

5 AÑOS DE GARANTÍA SIN LÍMITE DE KM

**TUCSON Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: $CO_2$ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.**

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUED ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGDI 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autoentzat. BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-eskaintza barne. Hyundai-ra Aldatu Plana aplikatu daiteke erabilitako auto baten truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren titulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Cinking Solución Flexible produktuarekin finantzatzen duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. * Hyundai Motor España S.L.U-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



ARRATE BEZPERAKO

# bertso-afaria

IRAILAK 7
OSTIRALA 21:00
KANTABRIA




Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika

32€

SARRERAK SALGAI Kultu, Sagarbitza eta Kantabrian






20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17

bista eder
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es